

anaitasuna

1976. EKO IRAILEKOA
323-4 ZENBAKIA 35 PTA.

EUSKAL EZKER BAT K.A.S.



← **hondarribia
odoletan**

UZTARITZ 1976

EUSKAL HERRIKO ATE ERAKUSKETARIK HAUNDIENA

José de Ezpeleta, S.A.

EUSKAL HERRIKO ATE ERAKUSKETARIK HAUNDIENA

JOSE DE EZPELETA, S.A.
ATEAK - PANELAK - HOLTZAK

BILBON
Oficina central
Príncipe, 5
Tif: 4230930

ETXEBARRIN
Carretera Bilbao - San Sebastián Km. 4'5
Edificio Saga
Tifs: 4493143 - 4495058

BALMASEDAN
Correría, 47
Tif: 6800604

ZARAUTZEN
Polígono Industrial, s/n
Tifs: 841013 - 841906

GASTEIZEN
Urartea, 12
Polígono Industrial Aligobeo.
Tifs: 243850 - 54

BILBOKO ERAKUSKETA
Buenos Aires, 1 - bajo.
(Sotano Aviaco)
Tif: 4219811

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi
ondoko txartela eta bidal helbide hontara:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º

Apart. 495 - Bilbao-5

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia Tel

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

Urteko abonamendua:

Bertorako 500 pezeta
Latin Amerikarako 550 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako 700 pezeta

Ale bakoitza: 25 pezeta.

HELBIDEA:


Pelota, 4-1.º, Bilbao-5
Posta kaxa 495. tel. 4237449

AURKIBIDEA

- 3: Editoriala
- 4: Tantaka
- 5-11: Uztariz 1976
- 12-13: K. A. S., manifestua eta agiria
- 14-17: Hondarribia odoletan
- 18: Terrorismoa eta ONU
- 19: Poliziaz. Emakumeen burruak
- 20: Arriskua
- 21: A. Garate gure prensan
- 22-23: Festa, Borroka eta lasterak Baztanen
- 24-25: Euskal prentsa euskaraz
- 26-27: Elkar-ikuska: Arieñ Xoval
- 28-29: Donostiako elkarteen goraberak
- 30: Fluorosis Mungian
- 32-33: Munduñ barrera
- 34-36: Zentral nuklearik ez!
- 38-39: «Garaia»ren geroko «geroaren» erredentismoa
- 41-43: Elkar-ikuska: Andoni Elizondo
- 44: Ertlijioa
- 45: M. C.ren konferentzia
- 56: «Landeya»
- 47: Liburuak
- 48-49: Postaz etorriak
- 50: Kaleko eta irakurleontzat ohar bat

Maketapena: E. Zumalabe
Marrazkiak: A. Olariaga
Argazkiak: «Arkoila» eta X. A.
Moldizteguia: Elempuru Hnos.
San Martín, 153
ZAMUDIO
D. L. BI 1753-67

herriaren oihua



Demokrazia hitza entzuten da edonon. Herriak behar duela izan herriaren gausi.

Euskal Herriak badu hitz eginik azken urte hauetan entzun nahi izan duenarentzat. Entzungogor asko dabilke entzun ez bada.

Euskal jendeak "BATASUNA" oihukatu du zenbait kale eta plaza-tan. Batasun pundu batzu eskatzen zizkien politikoei euskal ezkerak, berrogei urtetako "despolitizapen"aren hutsunea betetzeko. Batasun oinharri baten gose-egarri zen euskal ezkerria. Euskal ezkerria badu bere batasuna.

Herriarentzat edozein memento edo une ona da bere ahotsa entzun eraztako. Eta politika herriarena denez, azken bolada honetan herri festak herri espresio bide bihurtu ditu herri politikoak. Baina ez denen gogoko herri ahots hau. Euskal Herri osoko herri festen zapalketa lekuko. Jesus Maria Zabala erhana eta zenbait zauritu, "amnistia" eta "Pertur askatu" oihuztatzen zutela.

Ondrengo herri erantzuna ez da itxaron: herriak hitz egin nahi du, bere hitza inork ere kontrolatu gabe, eta entzuna izan dadila.

Herriaren ahotsari jaramonik egiteke bizi izan den zenbait alkatek, herriaren zapalketa bertan ikusiz, eta aginten eza forogatzuz, dimisioa aurkeztu du, protesta gisa.

Herriak euskal kultura nahi du, euskal Unibertsitatea nahi du, euskara maila horretara irixten denez gero. Besterik ezean, hor dago Uztaritzen bildu diren 500 ikasle eta irakasle, euskararen balio eza defendatzen dutenen arrazoi falta forogatzuz.

PASARGADA LAURELEDUN ALDIZKARIA

Lisboako hiritik dator oraingoan berria. Manuel de Seabra portugaldar idazlearen zuzendaritzapean, *Pasárgada* izeneko literatur aldizkari bat agertzen hasi da Portugalen. Aldizkari hau, urtean laur aldiz agertuko da, eta galaiko-portugesez, gaztelaniaz, katalanez eta euskaraz idatzia izanen da. Lehenbiziko alean, euskaraz, Arestiri egindako omenaldi bat dator, euskaldunek moldatua.



RENOTIK INGELESEZ

Ameriketako Estatu Batuetatik, *Newsletter* aldizkariaren 14. zenbakia heldu zaigu, Nevadako Unibertsitateko agerkaria berau. Ingeleseko berripaper hau, Willian A. Douglass-en ardurapean azaltzen da, Jon Bilbaoen lankidetzaz baliosaz, eta euskal estudioez aritzen da beti. Ale honetan ondoko artikuluoak aurki daitezke: *From the editor; Is there some basque in your english?; Consul of the U.S. for the port of Bilbao.* Eskatzeko: Basque Studies Program, University of Nevada Library, Reno, Nevada 89507 (USA).

ANAITASUNAKO KOMIKI BERRIA

Caja Laboralaren babespean, laster komiki berri bat azalduko da euskaraz ANAITASUNAn. Pertsonaiak *Airko* (Anton Olariagaren irudietan), *Sider 2000* (Eramon Zumalaberen marrazkiez) eta *Krisket eta Popolo* (J.K. Egillorrenak) izanen dira, erromatarren garaiko, oraingo eta geroko euskaldunen bizimoduak agertuz. Gidoiak X. Kintana eta B. Barandiaranen ardurapean eginak.

I. BERRIATUA ETA X. KINTANA ISRAELERA

Jakin dugunez, Imanol Berriatuak eta Xabier Kintanak Irailaren erdialdean Israelera joatea pentsatua dute. Bidaia honen helburua, israeldarrek beren hizkuntza irakasteko darabiltzaten sistema aurreratuak *in situ* aztertzea izanen da, bai eta literatur eta kazetal mailako estudio batzu egitea ere.



CERVINON BERE AZKEN IKURRIÑA.

Beste bost mendizale hil zaizkigu euskaldunoi. Oraingoan Cervino mendi eder baina ikaragarrian izan da. Mendi gailurrera heldu ondoren, beheara bidetara elur ekaitz izugarri batek suntsitu zituen mendizaleak. Hauetariko batek, Ciudad Realeko herri batetan jaiotako Celestino Valverde, Cervinora ikurrin bat eraman zuen gailurrean ipintzeko asmoz. Bizitzari bere azken agurra izan zen gure ikurrina jartze hori. Lerro hauetatik bost euskal mendizale hauen familiej gure dolumina.

ELEBITASUN PITXIA

Ipar Euskal Herriko batzuk, Euskal Departamentu baten beharra ikusirik, honen alde dihardute aspaldion. Oportunistak, ordea, ez dira hemen ere falta. Euskal Departamentu horretan elebitasuna ezartzeko kome-nientzia aipatu zuen norbaitek. Oso ederki, jaun horrek nahi zuen elebitasuna *frantses-espainolarena* ez balitz!!!

ETAk ESBkoez dioena

Agorrilaren 21ean, U.E.U.era ETA militarreko zenbait kide azaldu ziren, bertan, ikasleen artean, paper batzu, ESB taldeari buruzko argitasunak emanaz, banatuz. Haietan esaten zenez, ETAk ez du deus ikustekorik ESB taldearekin, eta beronek KASen parte hartu nahi ez duela eta, beronen jokabidea gaitzesten. Dirudenez, ESBkoek zenbait toki publikotan "beraien atzean ETA dagoela" aldarrikatu dute, antza denez ETA gure Herriaren sektore batzutan daukan prestigioaz baliatzeko asmoz. Horregatik, ETAk gauzak argi utzi nahi ukan ditu.

EUSKAL IRAKASTALDIAK GEORGIAN

Tbilisiko Unibertsitateak prezkeski deiturik, Jan Braun poloniar irakasleak uda honetan astebeteko ikastaro bat azaldu du Georgian. Dakikegunez, aurtentzen hasiko dira, modu ofizial eta iraunkor batez, euskarazko eskolak ematen Sovietar Batasuneko Errepublika horretako Unibertsitatean.

GALEGOAK AITZINDARI

Euskaldunok lo edo ibiltzen garelako ematen du. Katalan alkatetee kanpaina gogor bat darumate aspaldidanik Kataluniako herrien izen jatorrak ofizialki katalanezko forma eta idazkeraz ezartzeko. Orain, gainera, galegoak ere buru-belarri sartu direla dirudi. Lugoko sei munizipiok, Diputazioan beren izenak aldatu eta galegoz jatorri ezartzeko eskabidea egin dute ofizialki. Horrela, Piedrafita del Cebrero, *Pedrafita do Cebreiro*, Corco, o *Corgo*, Otero del Rey, *Outeiro de Rei*, Vicedo, o *Vicedo*, Jove, *Xove* eta Germade, *Xermade* izanen liriateke. Ba dugu non ikas.



III

ba dugu euskal unibertsitatea!

...Baina euskaldun askok ez du horren berririk, Euskal Herriko erdal Unibertsitatearen haizeak eta hotsak bakarrik datozkiolako.

Ausardi eta kemen handiz Udako Euskal Unibertsitatea izenez orain dela lau urte bataiatu zenak laugarren urtea bete du aurten, eta mutilkoskortua dago.

Asmo handi eta esperantza sakon baten baieztapena da Udako Euskal Unibertsitatea. Berriro ere, eta inoiz baino indartsuago aurten, ez dugun, nahi dugun eta behar dugun benetako eta urte osoko euskal Unibertsitate demokratiko eta herritar baten oinharria eta sustraia izan nahi duela adierazi da.

Horretara iritsi nahi duela eta ahal dela egitez aitortu eta baieztatu da: Eta egitez aitortzen eta baieztatzen duenak badu **EUSKAL UNIBERTSITATEA**.

Ez da zoro batzuren amets edo ameskeria ustela: bostehundik gora unibertsitari gazte, heldu eta adinekoak ez daukate ameskeriatan usteltzeko gogorik. Horrexegatik ere ordua da, lau urteotan bazterretik ibili den "errealitate" honi alderdi guztietatik bide zabalagoak eta tinkoagoak irekitzeko, ezarri zaigun erdal Unibertsitate burokrata eta burjesaren kontrako aukera benetakoia izan dezan Euskal Herriak.

UEU-k ez du Madrileko Ministergoaren ofizialtasunik; baina bai Euskal Herriarenik: Euskaltzaindiaren babes morala, Landagoien izeneko unibertsital etxea gogo onez eta dohan utzi duten Laburdiko Herrien babesgunea, Bordeleko Unibertsitarien lege babesa eta aurten batez ere Euskal Herriko talde eta alderdi politiko herritarrek eman nahi izan dioten herri babesa: hauek guztiok ematen diote UEU-ri ofizialtasuna.

Euskal Unibertsitatearen eginkizuna ez da euskararen bide berriak urratzea bakarrik —euskara batuak zientzi maila irabazi behar duela onhartua dago—. Gaurko Euskal Herriaren dinamika gizartezko, politiko, kulturazko eta ekonomiazkoen azterketa zientziazkoak egitea eta argibide seguruak bilatzea du bere eginkizuna.

Ihazko UEU-k agiri bat eman zuen: Euskal Unibertsitate nazional, herritar eta euskaldun baten alde. **ANAITASUNAK** bere egin zuen, osorik argitaratuz. Aurten beste agiri bat eman du, ihazkoaren gogoak aurtengo asmo eta egitamu bihurtu nahian. **ANAITASUNAK** berea egiten du, eta gogoaz argitaratzen.

EUSKAL HERRIAN

UZTARITZ

Uztaritzen, 1976.eko Agorrila. Goi aldeko landa batetan dagoen Landagoien etxea, Euskal Herriarentzako bilgunea bihurtu da. Toki zoragarria eta lanera bultzatzen dutenatarikoa, nahiz eta aurretiki geratu den. Seinale ona, halafede! Hilaren hamaseigarren egunaren goizean, jadanik eurrez etorria zen jendea; bildua zen, batasun lanean batzeko. Bi aste besterik ez dira izan; gure nortasunaren finkatzean eta aitzinatzean, ordea, garrantzi handitakoak. Denetara 332 pertsona matrikulatu dira; eta matrikulatu gabe egon direnak kontatuz, bostehun - seiehun bat partaide ukan ditu IV. Uda-ko Euskal Unibertsitate honek.

Sarrerako hitzaldia

Hilaren 16an, hamaikak aldera eman zitzaion hasera Unibertsitateari. Saio hau Haritxelhar jaunaren esku geratu zen, Euskaltzaindiko buruordea eta Landagoien etxeko buru den aldetik. Uda-ko Euskal Unibertsitatearen azalpena egin zuen, dituen ofizialtasun moeta desberdinak —Euskaltzaindiarena, Bordeleko Unibertsitatearena, Lapurdi Herriarena (Landagoien Lapurdiko Udalen baita)— azalduz eta azpimarkatuz.

Goizetako ikastaldiak

Interesgarri eta jakingarri delakoan, jadanik historia den IV. U.E.U. honen antolamendu akademikoa adieraziko dugu. Goizero, gosaldur ondoren, Uztaritzeko herrigunearan dagoen Bilgune izeneko etxera jaisten ginen. Horren arrazoia oso sinplea zen: Landagoienen, guztiok biltzeko moduko gelarik ez zegoela. Nork pentsa zezakeen horrelakorik, duela hiru urte Donibane Lohitzunen lau katu biltzen ginelarik!

Bilgunen hiru ikastaldi ematen ziren goizero. Ikastaldiok jende guztiari zuzenduak egon dira, hots, dibulgazio modura antolatuak izan dira, modu honetan, jendeak erdaraz bereganaturiko kultura orokorra, euskaraz birberegana ahal zezan asmoz. Hori dela eta, hiru sail berezitan banatu ziren ikastaldiok: Zientzi Saila, Gizarte Saila eta Hizkuntza-Arte Saila. Bide honi jarraikiz, egunero hiru hitzaldi egiten ziren, jende gehienaren parte hartzearekin, eta berrehun pertsonaz gora bilduz.

1976



III

Goizetako ikastaldi hauen alde positiboentarikoa bat, berorietan parte hartu duten irakasleen kopurua dateke: orotara, hogeita hamar irakasle desberdin. Praktika honekin, hark guztiok euskal irakaskuntzan trebatzen ari dira, noski, eta orain arte unibertsitatean ageri den euskal irakasleen hutsunea betetzera etor daitezkeenik, ezin uka. Izan ere, zer izanen ote hitzateke etorkizoneko aldarrikatzen dugun Euskal Unibertsitatea, euskal irakaslerik ez balego?

Arratsaldeetako mintegiak

Hamabi terdiak aldean, berriro ere Landagoienara joaten ginen, bertan bazkaltzeko. Honela nolabaiteko indarra hartu ondoren, arratsaldeko mintegiak zetozen. Mintegiok ikastaldiez beste era batetara moldaturik zeuden: Oraingo hauetan, jendea hainbat sailetan banaturik aurkitzen zen, zein bere gustukoaren zehar sailean halebategia. Nolabait esatearren, espezialisten lana betetzen zen mintegietan.

Egin diren mintegiak, hauxek dira: Hizkuntzalaritza, Zientzia, Pedagogia, Medikuntza, Filosofia, Ekonomia, Literatura, Unibertsitatea. Horieta gain, itzultzaileak prestatzeko ikastaro bat ere egin da. Dena dela, mintegien eremuan hutsune nabariak ere izan dira, hala nola Historia, Natur Zientziak, Psikologia, Arte eta beste arlo batzutan ageri izan direnak. Pertsona batzu horietaz galdezka ari-tu izan dira, eta, zoritxarrez, ezin bete ahal ukan dute beren guraria. Datorren urtean aseko ahal dira!



Hilko ekitaldi bereziez

Euskal Herriak egun bizi duen giro politikoa ezagutuz gero, ezinbestekoa zen era batetara zein bestetara euskal politikaren azterketa gogoa Uda-ko Euskal Unibertsitatearen barnean harrotzea. Giro honetan hezurmamitu ziren, ikaslegoak proposaturik Idaskaritzak onhartu zituen zenbait ekitaldi politiko.

Unibertsitateak herriaren bilakaera politikoa-ri eman behar dion erantzuna ukazina da. Hala eta guztiz ere, aitortu behar da, batzuren eritziz U.E.U.ak programaturiko kultur ekitaldiak seriooki jorratzea, erantzun politiko jator bilakatzen dela; beste batzuren ustez, aldiz, Politikari zuzenean atxikitako zenbait gai eta ekitaldi bazterrezinekoak ziren. Dena den, Idaskaritzak eta Ikaslegoak soluziobide bat asmatu zuten ekitaldi politiko batzuei antolatzeke, kultur saioen denborari eta seriotasunari ezer kendu gabe.

Bi partetan partituak eta bereziak

Bi partetan bana genitzake aipatu ekitaldiok: hitzaldiak alde batetik eta zenbait talde politikoren ideologia eta programaren agerpena bestetik.

Jokin Apalategi eta Beltza azaldu ziren hizlari. Jokinek, berean, Nazionalismoaren ikuspegi teorikoak aztertu zituen. Hitzaldiaren xede nagusia hauxe izan zen: Nazionalismoa ez da gauza fijo bat; ba ditu elementu fijo eta aldakorak. Ikusmira honetatik analizatu zuen hiru garaitako nazionalismoa: Karlistadetakoa, Sabindarra eta gerra ondorengoak, halebaga.

Beltzak, aldiz, euskal langileriak burjesiarren aurrez aurre epe labur batetara eraman behar-ko duen burruka latza astertu zuen. Langile mugimendu estatalisterekiko harremanak azpimarkatzean, puntu bat baino gehiago ilun gelditu ziren gure irudiko.

Estudianteen boza

Talde politikoen ihardunaldiei gagozkiolarik, I.A.M.ek eman zien hasiera. Euskal ikasleen arteko batasunaren erakunde politiko bilakatu nahiz ari dira. Abertzale eta sozialista direla aitortu ondoren, I.A.M.en barnegiturak eratzeke daudela azaldu zuten eta ikasle guztien artean, demokratikoki, zenbait puntu taktiko finkatzearen premia.

M.C.E.koek nazional arazoari buruz beren alternatiba plazaratu ahal izatea eskatu zuten. Aldez aurretik argitu nahi genuke, beraien agerpena eman aurretik, zehaztasun eta baldintza batzuei finkatzea eskatu zitzaizkiela. Programa taktikora


mugatu ziren gehien bat eta, ondoren zabaldu zen debatean, kontraesan franko nabarmendu ziren. Amaitzeko, beste hau ere esan behar dugu. Hitzaldi honetan norbaitek hartu zuen jokaera desegileari ez zitzaion ikaslegoa jarraitu, aspalditik politikagintzan ari denarena baino heldutasun gehiago frogatuz.

Koordinatzaile Abertzale Sozialista mintzo

K.A.S.en aurrepresentapen labur bat izan zen ekitaldi hauen arauera azken eman zena.

Ezagutzen ez ditugun arrazoientatik, presentatu ziren talde bakarrak E.H.A.S. eta L.A.I.A. izan ziren.

Beltza aukeratu zuten K.A.S.ekoek moderatzaile bezala. Honek hasiera eman zion ekitaldiari



K.A.S. batasunaren historia laburra eginez eta beraren puntu estrategiko nagusiak aipatuz.

Ondoren, E.H.A.S.eko militanteek utzi zien txanda eta berauek beren estrategia orokorra eta Ipar eta Hego Euskal Herrirako taktikak azaldu zituzten.



EUSKAL HERRIAN

Hauek bukatzean L.A.I.A-ren ordezkaria mintzatu zen bere alderdiaren zenbait puntu azalduz. Ere berean, Beltzak K.A.S. taldea osotzen duten beste taldeei buruzko ohar batzu egin zituen.

Ondorioak

Konklusio gisa honako hauk azpimarkatu nahi genituzke:

—Ekitaldi hauk programatzean eta ematean euskara erabili zela soilki. Gaur egun, onhartu eta inork eztabaidatzen ez duen puntu bat da, Euskal Unibertsitatean euskara, eta ez beste, komunikabide bezala erabiltzea. Euskal politikaren zenbait buruzagik eta talde politikok urtean zehar eraman behar luketen jokabidearen aurrean, ikasbide esanguratsua iruditzen zaigu.

—Abertzale indarren koordinatze eta elkar-tzea aspaldi sentitutako gosegarria zela nabaritu zen. Hau honela, Ustaritzen azaldu zen ezker abertzalearen Koordinatzailea, zoriondu besterik



ez genezake egin.

—Azkenez, ekitaldi guztiok giro anaikor eta demokratiko batetan irauin zutela esan behar. Denbora argitsuagoen egunsenti izango ote? Hala espero dugu.

Martin Orbe

UNIBERTSITATEKO JAIALDIAZ

Udako Euskal Unibertsitatean jaialdi bat eratu zen Agorriaren 21eko gauean. Hara, gure Herriko kantari, txistulari eta dantzari guztiak deituak ziren. Horren kariaz gazte multzo ederra bildu zen egun horretan Landagoienara. Zoritxarrez, deituak izan ziren gehientsuak ez ziren etorri. Dirudie-nez, Agorriko larunbatak ez dirateke horretarako egunik aiposenak.

Dena den, Alfontso Irigoyenek, presentatzaileak, 6 orduetan zehar bere ahaleginak egin zituen jaialdiari giro eta su pixka bat ematen, kantu, bertso eta irrintzien bidez. Pixkanaka, beren baitarik, zenbait gazte hurbildu zitzaizkion, Uztaritzeko txistulariak, Oskarbiko neska bat..., eta denetarik txalo gehien jaso zituena: Telesforo Monzon betigaztea, Txikiaren omenez kanta eder eta sentitu bat kantatu ziguna.

Denbora aurrera zihoan. Gau hotza. Beronen kontra, zorionean, ba zegoen jaialdian mamagoxoa non eros. Zenbait lagunek, beharbada, gehiegitxo edan zuten.

Geroago Manex Pagola azaldu zen, eta guz-tiek kantatu zuten harekin. Goizeko laurak aldean, Nafarroako kantaldi batetik etorrira, Oskorri taldeko batzu —guztiek muga pasatzerik ez zuten eta— agertu ziren Uztaritzen. Talde hau zela eta, jendearen eritziak banatu egin ziren, eta batzuk zitzuka hartzen zituzten artean, beste batzuk kantatzen entzun nahi zituztela zioten. Giroa laster garratu zen, batez ere, estatal ideologia ezagun baten kontrako oihuak hasi zirenean.

Natxok bere bigarren kantari hasiera ematen

zitonean, lagun bik mikrofonoa kendu eta bere saioa bertan bukatzeko esan zioten. Eztabidak gertatu ziren, bai eta kolperen bat ere. Alfontso Irigoyen eta beste zenbait lagun bakea egiten saiatu ziren eta ordu erdi geroago edo, jendea barreiatzen hasi zen. Jaialdia horrela bukatzen zen, Euskal Herriaren egoeran logiko bezain tristagarria den moduan.

U.E.U.ko idazkaritzak, gertakari hori zela eta, ondoko informea atera zuen hurrengo egunean:

UDAKO IV —garren EUSKAL UNIBERTSITATEA INFORMEA

Agorriaren 21 ko gauerdiko jaialdian gertaturiko arazoaz den bezainbatean, U.E.U. ko idazkaritzak ondoko puntuok argitu behar ditu:

1. U.E.U. k Euskal Herriko kantari, txistulari, dantzari eta jaialdian parte hartu nahi zuten guztiak egun horretan Landagoienara kantatzera deitu zituen.

2. U.E.U. a ihazko agiria oinharritzat harturik, euskara mintzabide eta lantresna bezala darabilten euskaldun ikasle eta irakasle guztiei irekia izan da. Bidezkoa dirudi, beraz, kantariekin etab. jokabide zabal berbera erabiltzea.

3. Oskorri taldea, hortaz, beste edozein taldek bezala kantatzeko eskubidea zeukan. Eta kantatzera etorri zen.

4. U.E.U. ko idazkaritzak, ideologi arrazoi guztiez lan-da, ez du bere gain hartzen istilu horren erantzunkizuna, euskaldunon arteko oraingo bizikidetasun eta gizabidean demokrazian ulertzen dituelako.

76.8.23an
Idazkaritza



IEEII

Arratsetako ekitaldiak

Mintegiez gain, afalosteetan zenbait ekitaldi berezi antolatu izan dira: zinema eta antzerki saioak, mahai inguruak, filminak, jaialdia, hitzaldiak eta abar; batzu, lasaigarri, beste batzu, alaigarri, beste batzu, pentsagarri... Kultur eta informazio egintza bezala muntatuak, edozein unibertsitate-tan betetzen duten hutsunea betetzera etorri dira.

Gauarekin loturarik edukitzeko, ez da faltatu, inprobisatuki "prestaturiko" parranda ederrik. Nekagarri izan arren —goizalderarte luzatzen baitira sarri—, balantzan jarririk ba dute, bihotza alaitzeko eta indartzeko zerbait berezirik; eta indargarri eta bultzagarri diren aldetik, betoz holako parrandak ugari!

Bazkalosteak eta politika

Bazkalosteetarako, atsedendia pentsaturik zuten antolatzaileek, 2 - 3 1/2 bitartean hain zuzen. Baina hainbeste euskaldun kezkatu toki berean biltzearekin, abagadune ezin hobea zegoen, bestela ezin egin daitezkeen lanak egiteko. Horrela, U.E.U.ren antolatzaileetatik kanpo, egintza politikoen prestapen eta agerpenerako saioak eratu dira, atsedenerako geneukàn tartea biltatuz. Talde politiko batzuk beren aurkezpena egin dute, zenbait hitzaldi sakon egin da, eta abar. Ezin esan daiteke, beraz, denbora alferrik galdu denik. Horrelako lan egiterako nahiak eta praxiak urtean zehar irauten badu, espero izatekoa da, lanari esker gure egoera asko hobetuko dela. Ea bada!

Zenbait egintza berezi

Larunbatean gau osorako jaialdi bat antolatu zen. Ez dakigu zergatik —beharbada, deiak ongi zabaldu ez zirelako edo— baina oso kantari eta bertsolari guti etorri ziren, eta arte aldetik nahiko eskas geratu zela esan dezakegu. Edonola ere, ez gara horretaz gehiagorik luzatuko, Anaitasuna honetan bertan bestelako aipamen berezirik baitaigo.

Igandean Zuberoara txango bat antolatu zen, bide batez Euskaltzaindiak egiteko zuen batzartean parte hartzeko asmoz.

Unibertsitateak iraun duen bitartean, Haurtzaindegi zerbitzua eratu izan da, gurasoekin batera etorri diren haurrez arduratzeko. Guztiz beharrezkoa zen zerbitzu hau, lehen aldiz eratua izan da gaurten. Zorionak, beraz, aurrera eraman dutenei.

Liburu eta diskoen erakusketa eta saltokia ere antolatua izan da, beste zenbait tokitan eros ezin daitezkeen liburuak erosteko probetxatua berau. Gehien saldu diren liburuak Ortzi-ren "Los



vascos, Ayer, hoy y mañana" eta Gaurhuts-en "Sobre nacionalismo revolucionario, socialismo abertzale y marxismo nacional vasco" izenekoak izan direla esatearekin, nahikoa esanik dagoela uste dut. Magnetofono kasetekin ere berdintsu gertatu da, "Ortiziken" eta "Peio eta Pantxoa-2" izenekoak gehien saldu direlarik.

IV. UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA ZIFRATAN

Bukatzeko, eta datuak zehazkiro biltzea ezinezkoa gertatu den arren, batu ahal izan direnen aipamena egitea, guztiz interesgarri dateke.

Hasteko, alboko lau koadroetan matrikultatuen eta egintzen datuak agertuko ditugu. Denetara 332 pertsona matrikulatu dira.

| Jatorria | Zenbat |
|-----------------|--------|
| Araba | 1 |
| Bizkaia | 116 |
| Gipuzkoa | 163 |
| Iparraldea | 28 |
| Nafarroa Garaia | 24 |
| Orotara | 332 |

U.E.U.n matrikulatuak, ja oriko herrien arauera.

| Adin tartea | Zenbat |
|----------------------|--------|
| 18 urtez behera | 12 |
| 19-25 urte bitartean | 176 |
| 26 urtez gora | 129 |
| Ez dute jartzen | 15 |
| Orotara | 332 |

Adinaren arauerako klasifikapena. Batezbesteko adina 25 urte.

EUSKAL HERRIAN



| Ogibidea | Zenbat |
|------------------------|--------|
| Irakasleak | 119 |
| Ikasleak | 110 |
| Langileak | 22 |
| Ingeniariak | 9 |
| Ekonomistak | 6 |
| Administrariak | 6 |
| Lizentziatuak (Feta L) | 4 |
| Teknikariak | 3 |
| Medikuak | 3 |

Partaideen artean gehien ageri diren ogibideak.

| Ekitaldiak | Zenbat |
|-----------------|--------|
| Antzerkia | 1 |
| Filmeak | 3 |
| Hitzaldiak | 40 |
| Mintegiak | 114 |
| Mahaia inguruak | 2 |

U.E.U.ko ekitaldiak zifratan.

Ekitaldi horietan irakasle bezala parte hartu dutenak: 60.

Ikasleen jatorria

Hiritikoak: % 75
Baserritikoak: % 25

Sexu banaketa

Gizonezkoak: % 54
Emakumezkoak: % 46

Ikusten denez, beraz, probintziaka harturik, Gipuzkoa eta Bizkaiaren nagusigoa ageri da, gauza normala beraz. Adinez, gazteria da nagusi; zer esanik ez, hori oso gauza interesgarri eta garrantzizkoa da etorkizunari begira. Ogibideak era guztietakoak dira; ikastolatako maisuak eta unibertsital ikasleak nagusi direlarik. Ekitaldien koadroa ikusirik, zerbait baino gehitxoago egin dela esan dezakegu, eta prestatuz doan irakasleen kopurua geroago eta handiagoa dela ere bai. Aipagarria da, hala ere, ikasleen artean, % 20 *euskara nagusitan ikasitakoak zirela*.

Dena den, ohar bat egin behar da, ageri diren datuei buruz. Matrikulatu horik, U.E.U.n nolabaiteko iraupenez parte hartu dutenak dira. Horietaz gain, jende asko etorri izan da egun bat edo beste pasatzera, giroa ikustera, hitzaldi berezi batzu entzutera eta abarretara. Gauzak horrela, zenbat lagun etorri ote da? Bostehun edo seiehun bat beharbada. Baina zehazki ez dakigu.

Bisitatzera etorri direnen artean, Informabi-deetako batzu daude. Landagoieneren izan dira Anaitasuna eta Zeruko Argia, Donostia, Loiola eta Bilboko Herri Irratiak, Radio Montecarlo, Frantziako telebista (TF-3 katea), Berriak aldizkariak, eta beste.



Hitzatze gisa

Agiriko Unibertsitatea bukatu da. Urtean zeharko Unibertsitateak iraundo ote? Batzuk zerbait gehiago lortu nahi zuketan, Uztaritzen, eta horregatik desilusionaturik joan dirateke; beste batzu, ordea, ni barruan nagoelarik, optimista sentitzen gara, hainbeste jende lanean ikustean batez ere. Ba dakigu, antolakunde aldetik problemak egon direla, baina beren posibilitateen mugen barruko eremuan, antolatzailleek nahiko ongi lan egin dutela esanen nuke.

Hurrengoan gehiago eta hobeto!

J. R. Etxebarria



UDAKO IV EUSKAL UNIBERTSITATEAREN MANIFESTUA

Aurten, Udako Euskal Unibertsitatea egiteko, euskal ikasle eta irakasleak laugarrenez bildu gara Uztaritzen. Oraingo Euskal Herriaren egoeraz kezkatutik, euskal unibertsitatearen eta euskal hezkuntzaren beharra argiro ikusi dugu. Hori dela eta, Uztaritzeko ihazko ageriaren bidetik, ondo erabakiok hartu ditugu:

1.— Euskal Unibertsitate honek erakuntza sendo bat eduki behar du. Horregatik, uste dugu IDAZKARITZA IRAUNKOR BAT osatu behar dela, gutienez pertsona batek zuzendua, horrela, eta urte osoan zehar, unibertsitate arazoan ardura eraman ahal izateko. Halaber, uste dugu, unibertsitate hau osatzen duten sailek eta gero sor litezkeenek elkarren arteko komuntadura bat behar dutela, eta, jakina, horretarako, Uztaritzen egiten dena urte osoan zehar eten ez dadin, ezinbestekoa da sailburu erdiliberatu batzu izendatzea.

2.— Gaur egun euskal kulturgintzan ari diren guztien lanak bateratzeko, eta gure premietarako plangintza orokor bat moldatzeko, oso komenigarria litzateke Euskal Kultur erakunde orokor eta koordinatzaile bat lehenbailehen sortzea. Hortaz, U.E.U. horretan parte hartzeko prest dago, erakunde hori herri eta demokrazi oinharrietan antolatua izatekotan, eta ez bestela.

3.— Esan dugunagatik, euskal politik, erlijio eta kultur erakunde guztiei hauxe eskatzen diegu: Uztaritzeko ihazko eta aurtengo manifestuak ofizialki onartzeara, eta berauen arauera euskalduntze benetako bat, maila guztietan, sorterazi eta indartzea; esaterako, herri guztiei beren euskal izen jatorra ezartzea, kaleen izenak euskaratzea, denda, saltoki, enpresa eta erakundeen izen eta idazki guztiak euskaraz agertzea, bai eta estatar, erlijio eta pribat dokumentu guztiak euskaraz ematea, guztietan Euskaltzaindiaren arauak onharturik. Ozenki salatzen da, bestetik, gure Herriak frantses eta gaztelau kulturen azpian pairatzen duen diglosi egoera larria. Hori dela, eta egoera aipatua gainditzeko, maila guztietan euskara ofizialki eta lehenbailehen ezartzea eskatzen dugu. Berau, bereziki, beren teori oinharrietan Herri bakoitzak bere hizkuntzan hezia izateko eskubidea onhartzen dutenei zuzentzen diegu.

4.— Euskal Herriaren egungo sozial egoeran lotsagarriak dira gure herri kulturak dituen eragozpenak, ekonomi arloan batik bat. Beraz, Euskal Unibertsitateari eta Euskal Kulturaren aldeko erakunde guztiei ahalik eta laguntzarik zabalena ematea eskatzen dugu.

5.— Oraintsu emandako indultuari buruz, beronen urritasuna salatu eta deitoratu behar dugu euskaldunok. Hau dela eta, Euskal Herriaren eta Espainol Estatupeko beste herrien askatasunen alde burukatu duten preso guztientzat, egiazko amnistia orokor bat, inolako mugarik gabe, exigitzen dugu.

6.— Udako Euskal Unibertsitateak Euskaltzaindiaren bidetik joan nahi du; hortaz, Unibertsitate honetan egiten diren lan guztiak euskaraz egiten direnez gero eta zenbait euskaltzainek bertan parte hartzen dutelarik, Euskaltzaindiak Unibertsitate honetan lankide gertuak aurkituko ditu beti.


Horregatik, Euskaltzaindiari hauxe eskatu nahi diogu: gure Unibertsitate hau Euskal Unibertsitateatza aitor dezala.

7.— Oligarkia dominatzaileak ezarritako nazional zapalkuntzaren kontra, gure Herriak, hezkuntzaren lehen mailan, ikastolak sortu ditu. Euskal irakaskuntzaren zutabe trinko diren aldetik, U.E.U. ikastolen alde agertzen da.

Bestalde eskola profesionalak daude, sistema kapitalistak eskulana eta burulana bereizteko darabilen irakaskuntz moldea. 1975.eko agirian esaten zenez, geure unibertsitateaz guk berezkuntza hau gainditzeko asmotan dihardugu. Alde honetatik, premiazko iruditzen zaigu, orain arteko bereizkeriak baztertuz, eskola profesionalen planteiamendua errotik aldatzea.

Guzti honegatik, hau da, irakaskuntz molde bi hauen fruitu gisa, Euskal Herria ekintza honi jarraiki eta, gaur egun, unibertsitate paralelo bat sortzera behar izan da. Honela ulertu behar dugu, hain zuzen, Udako Euskal Unibertsitatea, halegia, urte osorako sortuko dugun herri unibertsitatearen hasera gisa; Euskal langileria eta Herri osoaren egitekoa berau.

Uztaritzen, 1976. eko Agorrilak 28 an.



EUSKAL HERRIAN

EUSKAL LANGILE KLASEARI ETA EUSKADIRI ZUZENDURIKO AGIRIA

EUSKAL HERRIKO ALDERDI SOZIALISTA (E.H.A.S.), EUSKADI TA ASKATASUNA (Politiko-Milaterra) (E.T.A. P-M), LANGILE ABERTZALE IRAULTZAILEEN ALDERDIA (L.A.I.A.) erakunde politikoek, eta LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEA (L.A.B.) eta LANGILE ABERTZALE KOMITEAK (L.A.K.) langile erakundeak, 1976.eko Agorrilaren 18an K.A.S.eko (Koordinadora Abertzale Sozialista) batzarre extraordinarioan bildurik, beren esfortzuen bateratzearen komenientziaz eta premiaz konturatuturik, ondoko erabakiok hartu dituzte:

1.— E.H.A.S., E.T.A.(P-M) eta L.A.I.A. erakundeek osoturiko K.A.S. antolakundea formaltzea, indar abertzale eta sozialista guztientzako politika bateratu baten lortzeko.

Antolakunde hau modu honetara eratzen da:

2.— Osatzen duten erakundeentzako eztabaida-mahai nahitaezkoa izanen da. Bertako erakunde guztiak K.A.S. barruan aurkeztu behar dituzte beren alternatiba eta egintza politikoetarako autonomia eta askatasun organizatibo eta politikoa errespetatuz, K.A.S. barnean ahobatezko erabakia hartzea ezina denean baizik ez dute autonomia hori erabiliko.

Eztabaida hauen helburua hauxe izanen da:

2.1.—Historik kojuntura bakoitzerako, Euskal Langilariaren nahie erantzunen dien alternatiba politiko bateratuak formulatzeko posibletasuna.

2.2.— Batasuna potentziatzeko hitzarmena, eta bere kasuan, masa erakundearen sorpena —langile eta herritar erakundeak prezeki—, berorien bidez euskal langile klasea eta herritar klaseak adierazten eta onhartzen direlarik.

Eztabaida hauetarako, esanikako masa erakunde horien etengabeko presentziaren premia du, K.A.S.ek, euskal iraultza sozialista finkatzen deneko oinharri soziala, erakunde horiek osotzen baitute.

3.—K.A.S.eko partaideak, antolakunde honen barnean daudelarik, konprometua hartzen dute, berek apuiazten dituzten masa erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinaketa —ahalik eta hertsien— desiratu baten puntuak eztabaidatzeko.

Aurreko atalean adierazi den bezala, funtzio hori betetzeko, K.A.S. barruan, erakunde horien etengabeko presentzia guztiz beharrezkoa da, lankidetzeta eta koordinaketa hori egokiro instrumentalduta ahal izateko.

4.—K.A.S. erakundeak irekirik dago, hemen bertan azaldu diren arauak eta, modu berean, agiri honen hurrengo lerroetan adierazten diren helburu eta hastapenak OSOKI ONHAR DITZATEN indar antolatu guztiei, jadanik sortuak edo sortzeko direnei:

E.H.A.S., E.T.A. (P-M), L.A.I.A., L.A.B., L.A.K.

L.A.B. eta L.A.K. langile erakundeek Agiri honetan formaltzen den K.A.S. erakundearen bileretarako bere presentzia prometatzen dute.

K.A.S.aren bidez instrumentaltzen den aliantza estrategikoaren izateko arrazoia osatzen duten E.H.A.S., E.T.A. (P-M) eta L.A.I.A. erakundeek hastapen eta helburu estrategiko komunak edukia ezagutzera emateko asmoz, ondoko manifestua argitaratzen dugu:

MANIFESTUA

Euskadi, nazio bezala moldatzen duten ezangarri bereziak dituen gizarte historikoa beratu, espainol eta frantses Estatu inperialisten domeinu pean zabaldu eta azpiraturik aurkitzen da gaur egun. K.A.S. antolakundea osatzen duten indarren nahia da, euskal jendearen aspirazioak eta bere askatasun nazionalaren alde eramaten ari den burruka, osorik onhartzea eta bereganatzea.

Euskadi, bizigune nazional berezia, beren interes antagonikoengatik elkarren kontra ari diren klasetan zatiturik aurkitzen da, kapitalist sistemen pean dauden gizarte guztiak bezala. Klase horien artean, eta euskal herritar klaseen barruan, langile klasea dugu, zeina, gizarteko kontradikzioak gradurik gorenean jasaten dituelarik, eta beraren barne-kohezioagatik, herritar klaseen multzoaren klase zuzendaria izateko bidetan somatzen baita. K.A.S.a osotzen duten indarren nahia, euskal herritar klaseen interesen defentsa asumitzea da, eta, era berean, interes horien lortzeko, langile klasearen zuzendaritz papera onhartzea eta potentziatzea.

Euskal Errealitatearen alde biak, nazionala eta soziala, —azken batez, eta, era desberdinetan, klase burruka ber baten dinamikaren agerpenak— ezin banan daitezke inola ere, ez eta partzialki konpondu ere, bietariko edozein bestearen menpean jarriz. Honela, bada, K.A.S.a osatzen dutenen nahia, euskal errealitatearen burrukaren bi arlo hauetan batera eta koordinatuki aurreratzea da, Euskadi antolakuntza eta estrategia askatasuna mantenduz.

Baiezaturiko nahi horrek, euskal eta klase gabeko gizarte baten sorpena posibletatuko duten helburu estrategiko —epe luzetarako helburuak— batzuren eskabidean hartzen du forma.

Hauxek dira helburuok:

Euskadiarentzako erabateko askatasun politikoa, hots, euskal populuak bere etorkizunari buruz erabakitze gaitasun osoa, beronek Euskal Estatu askatu eta birbatu baten lorpena adierazten duelarik.

Iraultza sozialistaren lorpena, beronek, langilariaren buruzagitzaz osaturiko Euskal Estatu hori, Herri-Errepublika Sozialista eta Demokratiko baten ezarpena adierazten duelarik, eta bertako formula konstituzionalek, euskal gizartearen gestio osoan populuaren parte hartze oso eta zuzena garantizatuko dutelarik.

Maila guztietan, euskal nazional eta herritar kulturaren berreraikuntza eta aintzinamendua, eta hori euskal langilariaren produktu eta adierazpen bezala uler-tuz; eta prezeskiago esanez, euskalduntzea eta euskararen erabiltzearen normaltze osoa, gaur eguneko egoera trilinguetik hasiz.

Modu berean, Euskadirentzako betirako askatasuna, espainol eta frantses Estatu-tuetako, eta Europa eta mundo osoko beste Herri guztientzako askatasunarekin loturik doalako kontzientzia dugu, eta internazional solidaritatean inolako domeinurik gabe finkaturiko harremanen mantentamenduari lotua ere bai.

Aurrean aipatu helburu horik, gure herria zurrupatzeko eta zapaltzeko duten kapitalist eta inperialist egituren deuseztatzearekin baino ezin lor daitezke. K.A.S. antolakundeak, beraz, espainol eta frantses kapitalismo inperialistaren aurkako burrukan, estrategia hori onhartzen du.

E.H.A.S., E.T.A. (P-M), L.A.I.A.



HEGO EUSKADIRAKO E.H.A.S., E.T.A. (P-M), L.A.B., eta L.A.K. en POLITIK ALTERNATIBA.

Gaur, Espainol Estatuaren gobernarekin frankista zaharra burjes demokrazia baterantz lerratzen ari den une honetan, dudamudaz eta atzerapausoz beteriko prozesu hau Boteretik bidea bere helbururaino ailegatzeko interesik ez dutenek ezin geldiroago badaramate ere, EHAS, ETA (P-M), LAB eta LAK (?)eko indarrak Euskadi osoari Hego Euskadira proposatzen dugun geure alternatibaren programa agertu nahi diogu. Gure eritziak, gutieneko askatasun demokratiko eta nazional hauekin osaturiko programa hau da, hain zuzen, egiazko demokraziaren dinamika baterako oinharri bakarra. Programa honek, eta beronen inguruan egindako Erakunde Bateratuak, euskal herri-klaseei elkartzeko era eraginkor bat eskainiko dietelakoan gaude, horrela, Euskadin dagoen masaburruka azkar eta erradikalizatuak dauzkan bideekin, oligarkia, orain batzurekin duen tolerantzia eta permisibilitate —eta beste batzurekiko darabilen erreprezio— jarreratik jaistera behartuz. Alternatiba-programa hau ondoko puntuetan osatua da:

1.— Askatasun demokratiko osoen ezartzea, inolako murrizterik gabe.

2.— Amnistia osoa: askatasuna preso politiko eta sindikal guztientzat, axilotu guztien herriratzea.

3.— Erreprezio gorputz (BPS, PA, GC,) eta jurisdikzio berezien deuseztatzea, bai eta gure Herriaren kontrako erreprezio lan kriminaletan nabariarik aritu direnei horren kontu eta erantzuna eskatzea ere.

4.— Herritar masen —eta bereziki langile klasearen— bizimodu eta lanbidean egoera hobetzeko neurriak hartzea. Beraien erakunde errepresentatzaileen bidez agerturiko sozial eta ekonomi eskabideak lehenbailehen betetzea.

5.— Euskadiren nazional soberania onartzeari, hau da, bere nazional etorkizuna erabakitzeke duen behar eta eskubidea onestea, Estatu propio bat eratzeke aukera barne delarik.

6.— Lehenbiziko unetik, Hego Euskadira, behin behineko autonomi gobernu bat ezartzea. Estatutu hau dokumentu honek bultzatu nahi duen alternatibaren erakunde bateratuan moldatuko da eta gure Herriak proposa ditzakeen iniziatiba guztiak bilduko ditu. Errepublikar garaiko estatutuak ez ditugu ahanziarik, baina gure ustez gaur eguneko Estatutu berriak Euskadiren oraingo egoerari eta

ordutik hona nazional burrukan lorturiko aurrerapenei egokitu behar du. Horregeatik, eta beste batzuren artean, ondoko eskabideok eduki behar ditu:

6.1.— Hego Euskadi osorako izatea, hau da, gaur egun espainol administraziopean dauden Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako probintziatarako.

6.2.— Euskal gizartearen arazo garrantzitsueni dagokienez, arlo exekutibo, legislatibo eta judizialen, aski zabala ezatea, hots, ekonomi sailean (hazienda, finantzak, industria, lurlangintza eta mertalgora), sozial arloan (lana, medikuntza, etxebizitzak), oinesturan (komunikabideak, garraioak Herri Lanak, energi iturriak), barruko arazoetan, defentsan, atzerriko harremanetan eta hezkuntz eta kultur erakundearen bereziki.

6.3.— Hego Euskadi osoan elebitasuna ofizialki ezartzea, orain arte pairaturiko hizkuntz eta kultur zapalkuntza luzearen ondorio guztiak ezareztu arte, euskarari lehentasuna emanez. Halaber, maila guztietan nazional kultura aurreratzea.

6.4.— Orain arteko estatar mugen gainetik Ipar (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa) eta Hego (Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) Euskadi populazioak elkartzeko dituzten loturak indartzeari.

6.5.— Ekonomiaren kontrol demokratiko eta antioligarikiko bat garantiza dezaketenei neurri ekonomiko batzuek hartzea, horrela ekonomia (oinharrizko sektoreen nazionalizazioa, hiri eta industri lurren sozializazioa,...) Euskadiren serbitzutan ezarri.

6.6.— Jatorrizko eta etorritako populazioaren arteko egokitze prozesua indartzeari. Hiritar guztiek duten jatorria dutelarik oinharrizko eskubide berberak ukanen dituzte.

6.7.— Sindikal autonomo eta artez bat bultzatzea horrela langileek beren errepresentatze organo propioak antolatu ditzaten.

6.8.— Herriaren herriko eta tokian tokiko komunitateen antolakuntza demokratikoa indartzeari.

7.— Esandako Estatutuaren barruan, Behin behineko Gobernu bat eratzea, beronetan parte hartu nahi duten eta bertan

aipaturiko askatasun eta hastapenak onartzeko dituzten euskal indar demokratikoez osatua Gobernu hau, Hego Euskadiren izenean faxismoaren porrotaren eta demokraziaren garaipenaren ondoan sortuko den Botere Zentraleko organoetan presente egonen da. Hego Euskadik Behin behineko Gobernu Zentralea eta estatar mailan emanen den konstituzio berria onhartu egingen du, baldin eta berarekin hemen azalduriko hastapen eta askatasunak eta espainol Estatuaren beste nazionalitateenak onhartu eta garrantzitzen badituzte.

8.— Aipaturiko eskubide eta askatasunotariek deus guti lor daiteke Juan Carlosen Monarkiaren gobernu erreformistekiko harreman eta tratu burokratikoaren bidez. EHAS, ETA (P-M), LAB eta LAK en ustez, hemen azalduriko nahi demokratiko eta nazionalak lortzeko, herri burruka prozesu bat beharrezkoa da, horrela, Euskadiren interesen etsai eta beronen nahien zapaltzaile diren faxismo eta botere oligarikoaren iraupena zatikatu eta birrintzeko. Hori aski garbi dago, Francoren heriotzaz gero gure Herriaren gaitzigabeki egindako asesinatu ugariak, tortura berretu eta basatiak, atxilotze, eskuindar atentatu eta, hitz batez, terrore giroa kontutan harturik. EHAS, ETA (P-M), LAB, eta LAK(?)ek beraz, lortu nahi duten Erakunde Bateratua burruka-erakunde gisa ezartzea proposatzen dute, herritar eta langile mobilizapenak, diktaduraren gainbeheratze osoa eta gure nahiak lortu arte, bultzatuz.

EHAS, ETA (P-M), LAB eta LAK ek, esandako eskabide eta hastapenak eta espainol Estatupean zapaldurik dauden beste nazionalitateenak puntu askotan, antzekoak gerta daitezkeela uste dute. Bide honetan beraz, haiekiko aliantza politikoa baten alde agertzen da, espainol Estatupeko Herri guztien askatasun demokratiko eta nazional guztien eskabide elkartzua egin ahal izateko.

EHAS, ETA (P-M), LAB, eta LAK ek alternatiba-proposamendu hau Hego Euskadin ari diren erakunde politiko eta masa-antolakunde guztiei eskaintzen diete, eta alternatiba honen oinharriekin bat datozen guztiekin, Erakunde bateratu bat osatzeko borondatea argi aldarrikatzen, honen bitartez faxismoaren kontrako alternatiba demokratiko eta nazionala bideratzeko.

EHAS, ETA (P-M), LAB eta LAK (?), gainera, alternatiba honen puntuak zabaldu, aurreratu eta konkretatzeko gertu daude, prestatuko dituzten proposamenak moldatu nahi den Erakunde Bateratura presentatu eta eztabaidatuak izan daitezkeen.

E.H.A.S., E.T.A. (P-M), L.A.B. eta

hondarribia odoletan >



JESUS MARI ZABALA
... izar berri bat piztutera noa, Euskal
Herriko zeru gainean.
Hemen erori zen



Hondarribiak ez zaitu ahantzi, Zabala.

Hauk izan dira laburrez, Hondarribiko erhateak izan dituen ondorioak:

Irailak 7, asteartea: Hondarribiko jaiak direla eta, gaueko 10:30etan goardia zibil batek Jesus Mari Zabala Erasun irundar gaztea tiro batez erhaten du. "Hostal Emperador"ean, une berean, Hondarribiko gorporazioa Gobernadoreekin zegoen afari ospetu batetan. Erhatearen berri izatean, Hondarribiko udaletxekoek uzten dute, gobernadoreak han segitzen duen bitartean.

Irailak 8, asteazkena: Hondarribiko gorporazioak festak amaierazi egiten ditu, bere dimisioa agertu eta goardiek erabili duten indarkeria magagabekoa salhatuz.

Goizean, Pasaian, Luzuriagako langileek manifestazio bat antolatzen dute. Ondorioak: langile batek hanka batetan tiro bat hartzen du.

Hondarribian, arratsaldeko 8etan, baimenik gabeko manifestazio bat agiten da, gobernadoreak baimenik ez baitzuen eman. Egurra ugari. Txillida eta beste personaia batzuk ere, Zabala eroritako lekuan goardia egiten ari zirela, indarkeriaz alde egin behar dute.

Irailak 9, osteguna: Irunen Zabalaren oroimenez elizkizunak. 10-15.000 lagun biltzen dira Santa María del Junkal elizan. Bertan Donostiako apezpikuak egindako homilia irakurtzen da. Homilian goardiak erabilitako indarkeria zuzenean salhatzen da. Salhakuntza hau Donostiako egunkarien horrietan isiltzen da.

Irailak 10, ostirala: Gipuzkoako hamazazpi gorporaziok dimisioa agertzen dute. Hauk izan ziren: Azkoiti, Azpeiti, Arretxabaleta, Eibar, Elgeta, Eskauriatza, Gabiria, Hernani, Legazpi, Arrasate, Oihartzun, Ormaiztegi, Usurbil, Villareal, Bergara, Zaldibia eta Pasaia. Eskakizun batzu ere egiten dituzte. "orden público" indarrak kontrolpean jarriak izan daitezela, horien artean. Villafranka, Tolosa eta Zarautzko gorporazioek eskakizunak izenpetzen dituzte baina ez dute horregatik dimisiorik eskaintzen.

Zabalaren jaka, paparrean ikurrina, beherago, bala zuloa.



EUSKAL HERRIAN



Bala zuloak orman. Ikurrina bertan.


Irailak 12, igandea: Donostian estropadak direla eta tentsio handia nabaritzen da goizetik. Estropadetara joandako ikusleak ez dira aurreko urteetan bezain ugari. Zine Festibalean dauden kazetari eta zine-jende multzo batek Festibal barruan gertatutako "gala", bankete eta beste jaialdiak kenduak izan daitezela eskatzen dute. Festibalaren antolatzailerak eskakizun hau onhartzen dute. Hondarribi, Irun eta beste herri askotan taberna eta jantoki askok beren atak hersten dituzte.

Estropadak amaitzean, Pedreñako patroiak Konstituzio plazako balkoi batetik irabazitako Espainiako bandera erakustean oihu eta deihadarrez hartua izan zen. Arratsaldean, Bibiloteka Munizipalaren balkoi honetan zegoen espainiar bandera kendu eta ikurrina ipini egin zen. Igande honetako gauean ere, Donostiako Parte Zaharrean, manifestari multzo handi bat tiroka sakabanatua izan zen.

Irailak 13, astelehena: Gipuzkoan eta Bizkaian greba orokor batek lantegi handi eta tikiak geldierazten ditu. Dendak ere hertsirik gelditzen dira. Sestaon sekulako indarkeriak egiten ditu poliziak eta baita ere Basaurin. Langile zaurtuak hamabi dira. Sindikatu ofizialak dioenez, astelehen honetan beren lanak alde batetara utzi dituzten langileak 230.000 izan dira, haucetik 160.000 Gipuzkoan.

Irailak 14, asteartea: Lantegi nagusienek greban irauten dute, beraien barruan bilerak egiten diren bitartean. Bilbon, Errekaldeberri hauzategian lantegiek greba egiten dute eta dendek atek hertsia. Goardiek manifestazio bat gogorki sakabanatzen dute. Galdakaon ere, nahiz eta bere jaietako egun garrantzitsuena izan (Sta. Kruz eguna), taberna eta jantetxeek atek hersten dituzte, jaialdi guztiak kenduak izan ondoren.

Irailak 11, larunbata: Sesio gogor baten ondoren eta herriak dimisioa eskatzen zion bitartean, Donostiako gorporetakoak, lehen Diputazioak bezala, agiri bat agertzen du, indarkeria "ofiziala" birsalhatuz. Saioa amaitzerakoan, Donostiako gorpoziokoak (alkatea tartean) Zine Festibala irekitzera zihoazela, grisak eraso gogor batetan kolpeka jotzen ditu. Otazu prokuradoreak hartu zituen kolpe gogorrenetakoak.





EUSKAL HERRIKO ALKATEAK, HERRIAREN ZERBITZARI ALA POLIZIAREN MORROI?

Santurtzin emakume bat bota zuten. Donostian, oraindik orain, emakume bat zaurtua. Udako eta herri festa guztietan izan da herria makila epelak hartua. Erreterian, herriaren ahotsa entzuteagatik, alkatea eta kontzejal guztiek Udaletxeko beren postuei utzi egin die. Bestalde, Tolosa ondoko herri batean, Ibarra hain zuzen, alkateak bere makila utzi du. Hau ez da Euskal Herrian gertatzen denaren adierazpen bat besterik. Amaiera gisa, Hondarribikoa izan da. Langile gazte bat erori da kale erdian. Handik gutira ez zuen gehiago arnasarik botako.

Berrogei urteotan indarra nagusi zen garaian, isilpean bizi izan gara. Orain ere, indarra dugu nagusi. Lehen, diktaduraren izenean eta orain, "demokrazia" eta "Ordenaren" izenean. Kaleetan, geure herriko kaleetan, inoiz baino odol isurtze gehiago ematen ari da. Suarez-ek berak esanagatik, herria ezin da kaleetan lasai ibili.

Ez da denbora asko telebistatik esan zuela, "Herriak du agintea". Herriak ala indar harmatuek?

Herriari atze emanik ari dira agintzen oraindik, Euskal Herriarekin kontaktu gabe eta, are gehiago, bere aurka. Presoak gartzeletan, noiz arte? Herriarekin kontaktu gabe, noiz arte? Herriaren aurka, noiz arte? Indar harmatuak jaun eta jabe, noiz arte?

Hala ere, oraingoan, ez da horren aurkako ahotsa kaletan entzun. Ez. Gipuzkoako Udaletxe batzuk hasi ziren egoera honen aurka beren postura agerteraziz, agintea utziz. Alkateek, Erreterian, Ibarra, Hondarribian eta Oinatin azaldu dute jokaera hori. Elkar hartuta aurrera jo nahi izan dute. Gipuzkoako 17 Udaletxetako alkateek, irailaren 10ean, Hondarribiko gertaerak izan ondoren, Gobernadorengana jo zuten. Beraien asmoa, sei puntutako agiri baten bidez, beren postura agerteraztea zen. Gobernadorearen eritziz, horrelako arazoetan, berak du hitza gauzak konponzeko eta gertatzekotan berari deitzeko zuzen zuzen.


Zertarako dago, beraz, alkatea? Pertsona bat hil eta gero alperrik da gobernadoreari deitzea. Zer da alkatearen egin beharra?

Dena dena, alkateek aurrera jo nahi izan dute eta herriaren izenean aurpegia heman dute. Bergarakoaren ondoren eta, beste arazo larri baten aurrean batu egin dira; ez guztiak ala ere.

Ondorengo pauso bezala, Irailaren 12an, alkate talde bat Oreja ministroarekin hitzegitekotan da Madrilan

Zer ondoren edukiko dituen esatea ez da erraza jakitea, baina, pauso batzuk ematen hasiak dira Udaletxe mailan ere. Politika batu baten beharra nabari da. Bergaran pauso bat aurrera egin zen. Oraingo prozesu honek noraino eramango gaitu? Beste mila gauzetarako bidea erraztuko duen esperantzian.

ORTZIKAR



Azpeitia
Gipuzkoa
tel. 812840

danona

KOOPFRATIBA

- * haltzarigintzan
nugusi
- * aukera
guztietako
- * logelak
- * egongelak
- * modulu gisa
tajaturiko
haltzariak

TERRORISMOA ETA O.N.U.

Entebbe-ko aireportuan bukatu da, oraingoz, palestinarren azken ekintza, eta lehendik Mendebal Europako Estatu batzu terrorismoaren aurkako estrategia internazional bat porposatzen bazuten, palestinarren aipaturiko azker gertaera honek areagotu egin du terrorismoaren problematika.

Terrismoaren aurka nazioarteko estrategia bat behar dela? Ados gaude. Baina, zer da terrorismoa? Zein haren definizioa? Zergatik sortzen da terrorismoa?


"Terrorismo" hitza erabiltzan den zentzuan, terroristak dira, adibidez, palestinarrek, irlandarrak, etab. Terroristak dira tupamaroak, kurduak. Baina, zergatik jo behar izan dute harmetara?

Giza Eskubideen Karta Internazionala eman zenetik hainbat urte iragan dira, eta epe luze horretan zerbat nabarmendu bada, Karta hori bete erazteko ONU-ren ezintasuna izan da. Hainbat Estafutan giza eskubideak zapaltzen dira, bai gizabanakoaren mailan, bai nazio mailan.

Estatu bakoitzak bere legeak ditu, eta polizia bat haik bete erazteko; ONU-k ez du bere menpean polizia internazionalik, berak emandako legeak Estatuari bete erazteko. Norbaitek, hau irakurtzean, bere jantziak urratu egingo ditu: Estatuari zerbaite bete erazi? Inola ere ez!. Hori onhartzinezko mutur sartze bat izango litzateke. Estatu barneko zereginetan eskua sartzea. Nazional soberaniari egindako atake bat. Eta nork daki honelako zenbat lerdakeria gehiago esango litzuketean.

Ba, jaunak, ONUk ezin baditu Estatuak behartu giza eskubideak gordetzera, orduan permiti gaitzate-la barre egitea terrorismoaren aurka ekintza internazional bat defendatzen dutenez. Seriotasun piska bat, jaunok!. Giza eskubideak legez bete erazten dira, eta bestela harmekin. Eta harma hauk egongo dira, polizia internazional baten eskuetan edo eta terroristenetan.

Sute bat itzal erazteko, alferrik da kea uxatzen aritzea: sua bera da ebaki behar dena. Gure arazoan, alferrik da terrorismoa gonbatitzea, giza eskubideak defendatzeko bide baketsuak ez daudenean. Giza eskubideak zapaltzen diren bitartean, terrorismoak irauin egingo du.



Ez dezala inork pentsa gu hemen terrorismoaren alde agertu nahi dugunik. Ez, eta inola ere ez. Guk hemen, soilik, terrorismoaren aurka agertzen diren batzuren maskarak kendu nahi ditugu.

Terrorismoa, kea da. Guza eskubideen zapalketa, sua. Terrorismoa, zapalketa haren ondorioa da. Eta ondorioaz aritzea, kea uxatzen ibiltzea, alferrikakoa da sua itzal erazten ez den bitartean.

Mundurako, mundo osorako, bakea nahi dugu, eta bake hori ez da adarretatik ibiliz lortuko, benetako problemari ausartki aurpegia emanez baizik. ONUk bete erazi behar du, mundo osoan zehar. Giza Eskubideen Karta, behar bada polizia internazional baten eraginez. Estaturen batek huts egingo balu, betetzera behartua izan behar luke. Planteamendu hau onhartzan ez duen Estatuak, ez beza terrorismoaren aurkako burruka internazional bat defendanda. Hori egingo balu, adar jotze bat litzateke.

Terrorismoa bazter erazteko bide bakarra, giza eskubideak gordetzea da. Besterik egitea, itxurak gordetzea litzateke, hitz batez, faltsukeria.

Xabier Deustua

P O liziaz

Venezuela-ko poliziak, egun hauetan zabaldu denez, Jorge Rodriguez sozialist buruzagia torturatu eta hil egin du komisaldegian. Ondorioz, **Gobernuak** indarkeria honetan parte hartu duten lau polizi, destituitu eta prozedura kriminal batetara eraman ditu.

Arazo honek Poliziaren problematika berriz ere plazaratzen du. Hauzitegiak bezala, Eliza bezala, Harmada bezala, Poliziak ere profesionala izan behar luke, hau da, gizartearen goi erakundeak bezala, neutrala, politik, sozial eta beste edonalako burruken gainetik egon behar luke.

Poliziak zeregin on, goitiar eta oso errespetagarri bat bete behar luke: ordena gorde. Herriak, bere ordezkarien bidez emandako legeak bete eta bete erazi. Eta herriak legeak ematen dituenean, legeok zuzenak izaten dira. Orduan, poliziek zuzenki, hau da, bortxakeriarik gabe, lege zuzenok bete erazten dituzte. Orduan, zuzen jokatzeko dutelako, errespetagarriak dira, herriaren aldetik ongi ikusiak, eta herriaren laguntza eta arnasa lortzen dute.

Baina beti ez da horrela gertatzen. Ba dira herriaren abotsa isilaraziz, diktadore nazkagarri horietarikorik duen edo izan duen Estaturik. Eta orduan legeak ez dira onak, diktadorearen zerbitzuan eta ez herriarenean eginak direlako. Orduan, poliziak ez da profesionala, politikoa baizik. Orduan, poliziak ez du zuzen jokatzeko, bortxakeriaz baizik. Orduan ez du poliziak neutral jokatzeko: persegituak alde batekoak izaten dira soilik, nahiz eta besteak delitu berbera egin.

Estatu baten lehen zeregina, diktadore bat joan eta demokraziarako bidean abiatzekoan, nolako Polizi duen aztertzea litzateke. Herri horri Polizi profesional batek soilik eman liezaioke zuzen jakutuko duenaren segurantz, jaunek eta ez jauntxoek osaturiko Polizi batek. Beraz, beharrezkoa litzateke Polizi neutral eta profesional bat, lege zuzenak ZUZEN bete eraziko lituzkena. Estatu administralgo berriaren demokratizatzeak, Polizi demokratizatzea eskatzen du, hau da, despolitizatzea, neutral bihurtzea, indarkeria eta partzialkerietatik at jokatuko duena. Hau egiten ez den bitartean Estatuko estruktura demokratiko osoa kolokan egongo da.

Xabier Gereño

e m a kumeen burruak

Emakumeak beren artean mintzatzea, eguneroko gauza da. Baina, emakumeak burruka giro baten beren askatasun orokorraz mintzatzea, hori bai eguneroko gauza izan ez dela, euskaldun emakumeontzat bederen, 40 urte hauetan.

Zartatzen ari den diktadura honek, bitarte edo zulo batzu uzten ditu, nahi eta nahiezko irekitasun bat eta zulo horietatik burua agertuz doaz hainbeste denboran pilaturiko eta zapalduko espresio nahiak.

Lehen hain ederki sakabanatu zena bildu, eriztiak eta ideiak jaso eta kontrastatu, bakarkako burrukatik...burruka antolatu batera pasa, hauek izan dira Donostian egin berri diren Gipuzkoako emakumeen batzarreetan lortu diren helburu batzu.

Zenbait eztabaida eta iskanbilaren ondoren, emakumeen burruka bultzatu eta koordinatuko lukeen Elkarte bat sortzea izan da batzarre hauen ondorioa.

Emakumeen askatasuna nahiz eta sozio-politik eta ekonomik aldakuntzara bakarrik ez mugatu, aldakuntza hauei oso lotua dago. Beraz, garbi dago, Elkarte honetakoa izan arren, emakumeek beste erakunde politiko, sindikal, hauzoetako eta abarretan parte har dezaketela.

Nahiz eta Elkartearenganako lotura indibiduala izan, bere barnean onhartzen dira talde eta joera ezberdinak marko demokratiko baten barnean, uste dugu.

Oraingo, eskabide plataforma bat, estudio talde batzu eta lege asesoritzak bat daude martxan. Batzorde eragilea oraindik izendatu gabe dago. Batzorde eragile honek, eskualde edo herrietako ordezkariekin batera eramango ditu Elkarte honen eratze eta legegetze lanak.

Bainan haseran aipatu duguna da garrantzitsuena. Emakumeak, beren egoeraz jabetu daitezela eta elkar harturik erantzun bat eman egoera horri.

Eta ez egon erregaluen zain. Benetan askatzaile den ezer, ez da erregaluz hartzen baizik eta konkistatzen. Ez al da hala?

M.A.L.

EUSKAL HERRIAN

ARRISKUA

Gai hau ez dugu gaur lehenengoz erabiltzen, baina berriz ere aipatzea beharrezkotzat jotzen dugu.

1936 aurretik, PNV alderdia soilik agertzen zen euskaltzale bezala. Gainerako alderdiak, ezkerrean eta eskuinean (karlistak barne), motel edo hotz agertzen zitzaizkigun beren euskaltasunean. Eta euskararenaganako hoztasun politiko honen parean, euskara beraren egoera apala nabarmentzen zen: euskara batu gabe zegoen, ia ikastolarik ez, liburugintza urria. Hitz batez, euskararen baztertzearekin, euskaltasunaren baztertzea zetorren.

Azken 40 urtetan, politikagintzan aritzea debekatua zegoenez, indar ugariak erabili ditugu euskal kulturaren arloan. Orain, euskara batua dugu, ikastolen mugimendu indartsu bat, liburugintza aberats bat. Eta orain, egoera honetan, alderdi politikoak burua altxatzen ari direnean, horra non agertzen zaizkigun euskaltzale. Baina gogoan har fenomeno hau (lehen euskaltzale ez eta orain bai) ez dela berez lortu, 40 urtetako lan isil eta nekezaren fruitu bezala baizik.

Eta hemen dugu orain arriskua. Azken 40 urtetan lortutako fruitua (ez agintariek emana, baizik eta haien kontra burruka bizian lortutakoa), arriskutan dago. Era arriskua, politikan datza. Politik memento oso interesgarri batetan gaude; dudarik gabe, eta politikagintzan ere lan egin behar dugunik ez dugu ukatuko. Baina, kontuz! Ez gaitezen politikan buru belarri erori. Ez dezagun bazter euskara eta euskal kulturaren aldeko burruka. Ez dezagun pentsa politikak soilik konpon ditzakela Euskal Herriko problema guztiak. Politikagintza, bai, baina euskal kulturgintza bazterturik gabe.

Irekitasun politiko batek, askatasunak, asko lagun diezaiekete euskara eta euskal kulturari, haik zuzen erabiltzen baditugu, azken bi hauen bultzagarri gerta dakizkigudelako.

Arriskua hemen datza: 40 urtetan, politikagintzan zapalduarik egon ondoren, orain denok, buru belarri, politikan aritzea. Hau, bestalde, oso normala litzateke, baina horregatik, normala litzatekelako, ez genuke burua galdu behar, ez genuke euskara eta euskal kulturaren aldeko burruka bigarren maila batetan utzi behar.

Erabil dezagun euskara gero eta gehiago, euskara, erabiliz salba dezakegulako. Sar dezagun euskara maila guztietako ikastetxeetan. Landu dezagun inoiz baino gehiago euskal literatura. Honela, eta honela soilik, lor dezakegu Euskal Herria euskalduntzea, al-



derdi politiko guztiak euskal kutsuz betetzea, euskaltzale bihur eraztea.

Ez gaitezen erori 1936 aurreko euskal politikariet jaurtiki diogun bekatuan. Ez dezagun jar euskara politikaren zerbitzuan, alderantziz baizik. Euskara da gure Herriaren nortasunaren oinharria. Ez dezagun ahantz balioen mailaketa. Azken helburua, Euskal Herri zuzen eta zoriontsu bat lortzea da. Euskara, hori lortzeko erreminta bat da, garrantzitsuenetakoa. Baina azken helburu hura lortzeko, erremintaz jabetu behar dugu lehenen. Erreminta egokiekin soilik altxa dezakegu etorkizuneko Euskal Herria. Beraz, gure helburu hurbila erremintaz jabetzea da.

Arriskua hori dago. Arrisku hori gaineztea gure eskuetan datza.

Xabier Gereño

A. GARATE GURE PRENTSAN

Jose Antonio Garate frantziskotarrak, orain guti dela, GOIZ ARGI astekariaren Zuzendaritza utzi du. Isil isilean erretiratu da, ia inor enteratu gabe. Isilegi, gure ustetan.

Gerra ondoko euskal kazetaritzaren protagonistarik bat, Aita Garate da. Aldizkariak sortzen, zuzentzen, laguntzen, zabaltzen eta idazten ikus genezakeen. Garaiko gizona, eta Euskal Herriaren maitasunak barne barnetik heltzen ziona. Hona haren zenbait lan: 1944an *Irujarrengo Maixua* delakoaren Zuzendaritza hartzen du 1950 arte. Honekin batean, 1947an hasita, *Franciscanismo* ere zuzentzen du. 1950ean *Anaitasunaren* sorreran ikusten dugu, eta 1955 arte hor dabil. Gipuzkoako Anaitasuna zen hau. Eta hain zuzen hemendik, eta Garateren baimenarekin, sortzen da gurea, *ANAITASUNA Bizkaia*, 1951an, Imanol Berriatua-
ren eraginez.


Gerra osteko urte hauetan euskal kulturging-tza ia hilik zegoela ezin da ahantzi. 1949an ateratzen da hemen gerra ondoko lehen liburua. Lege-kondizioak ikaragarri gogorak ziren. "Orduan etzan Euskalerrian beste aldizkaririk". dio Garatek.

Urtetan "Astea" izeneko astekari bat argitaratzea pentsatu ondoren, azkenik, 1960ean *Goiz Argi* hilerokoa sortzen du, "Aranzazu" aldizkariaren eranskin antzo. Beste lanetan ibili ondoren, Zuzendaritza Garate berak hartzen du 1964ean. Idazle gisa ere, hainbeste lan egin zuen, hilero hileroko 10 folia aldizkarirako idatziz. 1970etik *Goiz Argiko* lan eta arduetatik aldentzen aldentzen joango da Garate, osasun arrazoiengatik batez ere, eta burrukarako gogorik ez duelako ere bai, batik bat, aldizkariak hartu duen bide berrian.

Aita Garateren beste ekintza garrantzizko bat, Egutegia da: *Arantzazuko Amaren Egutegia*, 1947tik gaur arte milaka eta milaka euskal sukaldetan irakurtua. Ia hiru milioi irakurle harez gero izango zuen horrialdetxo horien inportantzia euskal kulturaren seinatzeko da. Lehenengo argitaraketan, kixotismo sano batekin, 40.000 ale bota zituzten. Geroztik, urtero urtero, 24.000 ateratzen dira. Gaur, 16.000 gipuzkeraz, eta 8.000 bizkaieraz.

Orain, Aita Garate kazetaritzaren lanetatik erretiratu egiten da. Aintzindari bat izan da. Berak dioenez, oraingo gizarteak aire berriak, aldaketak, jende gaztea eta berezitua eskatzen du. Euskal kazetaritzaren epe berri bat hasten da orain.

J. M.



AUZMENDI Jostun on baten eskua. Vergara 3

FESTA, BORROKA, LASTERRAK

Abuztuak, Baztandarren Biltzarre eguna zuen Elizondon igande 29an. Hogei milatik gora jende bildu zen bertako herri festan, baztandarren festan, euskaldunen festan.

Egun argiak, pintada gorritz josita ikusi zituen Elizondoko etxe xukenetako paretak. Bezperatik lana egina zuen P.N.V.-k.

Goiza trankil joan zen, bazkalondoa, aldiz, sutua; eta honen luzapena arratsaldean etsi gabezko borrokan iragana. Bai, mutur joka! Nor noren kontra? Ala... Nor eta nor elkarren kontra? Aertzaleak eta espainolistak elkarren kontra. Tartean ere manifestaldi bat izan zen.

Azkenean, ilunabarra aldera, goardia zibilek, "ordena" ipini zuten. Herria berrogeinaka gurtzatuz, gazte eta jende larria aurrean hartuz, kolpeka, uxatu zuten. Arratseko bederatzietarako baztarrak husturik zeuden, anima guti ikusten zen.

Laisterka egiteko garaian, abertzale ala espainolista bereizkuntzarik ez zegoen.

Baztandarren Biltzarre eguna, politik nahasi eguna eta kolpe laisterkada eguna suertatu zen azkenerako.

Pertsona baino ikurrina gehiago ikusten zen. Oihuek ere bete zuten Elizondoko ingurua.

EGUNA NOLA

Goiza.- Haraneko hamabost herrietako herri-gizonen Elizondoko agintariekiko errezibimenduari eman zitzaien hasera egunari goizeko 9-etan. Berehala, eraturik zegoen bezala, Meza Santua eman zen euskaraz.

Haraneko herrietako karrozen ibilketa, bertan hamabostek parte hartuz, oso ederra izan zen. Hautariko bost Elizondo bertakoak ziren, zeren eta herri batzuk ez zuten aurtengo biltzarrera karroza eramaterik ukan. Euskal Herrian egun daukagun politik egoerari nahiko aipamendu egin zioten hauek. "Nafarroa Euskadi da", "Euskadi bat", etab., irakur zitezkeen makina bat karrozetan.

Urrena, bostehun dantzarik baino gehiagok dantza saioa eskaini zuten beren taldeekin. Aipagai da Tafallako, Lizarrako eta Zankozako (Sangüesa)

dantzari taldeek parte har zezaten. Honen ondoren, eguerdiko ordu bata aldera, mutil dantza prestatu zen.

Segidaz, frontoi berriaren ondoan dagoen arboladian, herri bazkaria mila eta zortzirehunentzat.

Goizean, ikurrina baten eta pankarta pare baten azalpena ezik, ez zen deusere pasatu.

Bazkalondo beroa.- Ongi joan zen bazkaria. Giro alegera zegoen bazkalagunen artean. Bertsolarientzat eta soinu jotzaileentzat prestatu koskatik, antolatzaile batek, denei, bai lanari ziharzutenei, bai han zeudenei, eskarrak ematekiko idatzi bat irakurri zuen. Ordurako ia, bere jarrera oso xalotua izanik, kolama baten bueltan-bueltan jarrita, ikurrina bat zekusen.

Kafea hartzeko tenorean, epeldua nabaritzen zen giroa.

Baztango seme gazte batek hitz egiten du koskatik, Gaztelumendi Zabaleta Manuelen bere herrikoekin ezin egona azalduz. Beraz, dio, Segoviatik ihesitariko bat dugu Elizondoko seme hau, eta dirudienez ez da bere eskuetaraino amnistiarik helduko. Mikrofonoa moztu arren, Euskadiren politik egoeraz ere mintzatzen da. Honek hitz egitekin batean, pankarta zuri zabal bat hedatzen dute Gaztelumendiren seme-alabek denen bistan: "Gaztelumendi askatu", Elizondoko gazteriak sinaturik.

Horrela gauzak, giroa pausoka goritzen hasten da. "Gora Euskadi askatuta" eta "sozialista" eta gisako oihuak, "Eusko gudariak" eta "Gernikako arbola" kanten artean maiz entzuten hasten dira.

Kiderrekiko ikurrina bat hasten da eskuz esku pasatzen. Gizonezko eta emakumezko batzuk, buruaren gainetik aideratu ondoren musua ematen diote. Euskadiren eta Perturren aldeko oihuak sarritan.

Gizon bat koska batera igotzen da enparantzardian, P.N.V.koa dela diote, eta eskuineko eskuan ikurrina, ezkerrekoaren behatz bi sardexkan jarri, beren nazionalista himnoa hasten da abesten. Jendeak erdizka eta emeki laguntzen dio, dirudienez ez daki leloa. Gazte multzo batek, aldiz, hark mentu haretan ordezkutzen duen alderdiaren eus-



kal politik jokaera ez dela zinezkoa eta bere burjes izaera salatu nahi dute, "Nafarroa Euskadi da" "Pertur askatu" eta beste oihuen bidez boikot egin nahiaz. Halaz ere, amaitzen du himnoa.

Bazkal garaian eta ostean ere propaganda botatzen dute zenbait alderdik, P.N.V.k eta L.C.k hoinen artean.

Ezker abertzaleak sumatzen dira han hemen-ka.

Geroxeago, oraindik kafe ostean gaude, hiru t'erdia-laurak inguruan, auresku eta beste dantza bat aurkezten du dantzari talde batek ikurrinaren aurrean. Zera zion batek: "Ifar aldetik bidaltzen dizkiguten postalen antzo, hara nola hemen ere ikurrinaren aurrean dantzaten duten. Orain arte ikusi gabekoa genuen."

Ez dira hamar minutu pasatu eta gazte mordo bat bilduta, talde hertsian, besoak goian, oihuka hasten da: "Gora Euskadi gorria"... behin, berriz, behin eta berriz. Baita "El pueblo unido..." "Vosotros fascistas..." eta gisakoak, denak erdaraz. Orduan, inguru gehienetatik erantzun bizkorra jasotzen dute: "Euskaraz" "Espainolista kanpora" "Sukursalista kanpora". Istilua latza da. Talde bildu hori espainolista hartzen dute besteek eta hauk, era guztitako euskaldunetz hasi ezkerretik eskuineraino osaturik egon arren, abertzale konsidera dirateke. Berehala, okasio gogorak sortzen dira. Eztabaidak, muturjokak, botila eta pastel botakak. Zer eta norainoko zera den bakoitza ezin daiteke jakin, baina garbi dagoena, hemen bi talde egin direla, aipaturikoak. Gori dago giroa.

Arratsaldea.- Lau t'erdia aldera, mundu guztiak uzten du jan leku eta istilu lekua, eta txistuz, soinuz lagundurik herriko plazara doa. Dantza eta palda sortzen da han eta hemen. Inguruak ere jendez beteak ditu plazak.

Ikurrinak azaltzen dira eta oihuak gehiagotu. Lau-bost milakaz osatutako manifestaldi bat abiatzen da plazatik. Buruan ikurrina bat doa eta ondotik "Gaztelumendi askatu"ren pankarta zuria. Ia atzerago, beste hiru ikurrina geiago. Hautariko bat erdi ikurrina besterik ez da, zeren aurrez doan aldetik "Amnistia denontzat" eta "Komunisten Liga" hitzak daramatza, atzetik aldiz, eskutu aldetik, Euskal Herriaren ikurrina ikus daiteke, baldin norbera ere atzetik jartzen bada.

Kale Nagusira helduz gero euriak erasotzen du eta anitzek aterpea bilatzen dute. Gainontzekoek aurrera jarraitzen dute. Kalearen ertzean dagoen Eliza baten burdin hesitik, aipaturiko erdi ikurrina nori zintzilikatzen dute Liga Komunistakoek, hitzak errepide aldera eta ikurrina baztar aldera jarri.

Hau jartzerekin batera okasio latza sortzen da herriro. P.N.V.koa ezagun den batek, bortizki kentzen du burdinetatik zapia. Ligakoak, multzo bilduan zeuden, gainera jaurtikitzen zaizkio, hura eta hauk elkar joka hasiz. Hauk, bakoitzak nahi duena

jar dezan, esaten dute. Zapia berjartzea lortzen dute, baina denbora gutirako, zeren tiratzen du honetatik beste batek eta hor doa laisterka ihes, atzetik arrapa nahian dituela.

Gelditu direnen artean, eta gainera jende asko joan zaie biltzen, okasioak, jokak, haserrak sortzen dira. Berriz ere, eta une honetan alderdiak ahantz ditzagun, izugarritzko nahaspilaren ondoan, era guztitako jendeak bi aldetara jotzen du. Gertakariak, sorrera auresandako zapi kentze-jartze haretan du ukan, baina hori txingarra besterik ez da izan, orain gauza oso beste alde batetik doa. Batzuk abertzaleak eta besteak espainolista omen direla-ta, elkarri usadiozko oihuak botaz. Nerbioak azalean. Arratsaldeko sei t'erdia inguru da.

Bi gaztek, burdinetara igoz, pakea jarri nahia- ren alde hasi ziren mintzatzen, baina, jendea hain zegoen sutua, aski gutik egiten zien kauso.

Denen xaloen artean, bi ikurrina soil, hitzik eta izenperik gabe, ezartzen dituzte, hauk ere geroxeago norbaitek kenduak izateko.

Errepide erdian, hor dago jende pila geldirik, ez aurrera, ez atzera, okasioan, elkarren kontra oihuka. Euskararen behar eta balioa, abertzaletasuna, espainolismoa, eztabaida latzetaiko gaiak dira bi talde hauetan. Kapitalistek eta burjesek ere gorriak entzuten dituzte.

Nahasketaren erdian, ondoko etxeko hirugarren pisutik ozenki zerbait esaten hasten da andre bat. Ez da ongi aditzen, "Gora Baztan" bederen bai. Behetik, gazte batzuren erantzuna "Hija puta" oihukatzea da. Lotsagarri benetan. Mutil bat edo bi, mozkor bezala, sarrerako atea bortxaka ireki nahiaz hasten dira. Jende gehienak, bai hauk baztar erazi, bai birao hori isil erazten du.

Poliki poliki, plaza aldera sakabanatzen da jendea. Denbora gutiz gauza asko pasatu da.

Zazpirak aldera azaltzen dira goardia zibilak, egun guztian. Elizondoko eta inguruko herrietako errepidetan kontrolak jartzen eta autoen ibilerak eragozten aritu ondoren. Koartelaren ondoan hamabost jeep kontu zitezkeen. Herrian, ehun eta hogeitabosten bat zibil hiru multzotan banatzen dira eta jendearen kontra oldartu. Mundu guztia laisterka, inon ez da lasaitasunik ikusten. Herriko kale guztietan barna, gazte eta larri jendea, zibilen aurrean entzierroan dabilela dirudi. Baina ez nolana- nahiko entzierroa. Kolpeak barra-barra. Persona askoren hitzetan, beraik dabilta probokatzen, zeren jende askok, amorrus, kolpearen eta laisterren truke asmahalak esaten dizkie.

Sei gazte arrapatu zituzten, eta eraman ere, baina arratsean denak kanpoan ziren.

Festa zapuztu, jendea uxatu, hona hauen ordenaren ondoria.

Baztandarren Biltzarrea, kanpokoen eta bertakoen entzierroa bihurtu zen azken ordurako.

EUSKAL HERRIAN

euskal prentsa euskaraz

Aldizkari berriak.

Aldizkari berri zenbait sortzen ari da Euskal Herrian azken aldi honetan. Apirilean sortu zen **Punto y Hora de Euskal Herria**, uztailaren atera berri da **Garaia**, eta udazkenean datoz beste bi: **Berriak** eta **Sorka**. **Hauzalan** eta Nafarroan sortzeko zela entzun genuen noizbait, baina orain ez dugu horren oihartzunik. MCEk ere besteren bat ateratzeko asmorik ba omen zuen. Gero, beste sarritasun batekin, **Erria** egunkaria ere ba datorke.

Euskal Herriko aldizkariaren sorketa ugari hau, Espainiako prentsaren "boom" delakoaren atzetik dator. Hiruzpalau urte duela sortzen eta indartzen dira Espainian **Cambio 16**, **Posible**, **Guadiana**, **Doblón**, **El Europeo**, etc. Gaur munduan arrakasta handiena duten aldizkariak molde honetakoak dira, izan ere. Eta garbi ikusi denez, 1923an **Time magazine** eta 1939an **Newsweek** sorte zirenetik zentzu honetantxe doa eboluzioa. 50-60 urtealdian argi eta garbi agertu da nola errebista grafikoa krisian dagoen (Life eta Look desagertzen dira) eta nola eritzizko aldizkariak eta berdin ekonomiazkoak newsmagazine molde honetara lerratzen diren.

Eboluzio hori ikasirik, aldatu ziren urte honen haseran **Zeruko Argia** eta ANAITASUNA. Formula berdintsua hartu zuten biek. Aldakuntza inportantea da egin zutena. Inportanteagoa, hala ere, euskal kazetaritzaren hauzia argitan mahai gainera ateratzea. Geroztik argi eta garbi gelditu da, kazetaritzaren arloa, arlo zabala dela, eta konpontzerik nahi bada, gauza azko jorratu behar direla: profesionaltasuna, ekonomia, subentzioak, tituluak, hizkuntzaren trebetasuna, demografia linguistikoa, jendearen alfabetatu beharra, etab. Guzti hau, arazoaren planteaketa hau, euskal aldizkarian meritu da, eta ez erdarazkoena. Jakin nahi genuke, aurrerantzean euskal kazetaritzaren alde gertatuko ote diren erdal aldizkariak, eta zer egingo duten.

epe berri bat.

1976: euskal kazetaritzaren urtetzat jotzea, beraz, euskal kazeten inizatiba eta asmoa zen. Hori dela eta, egin ziren proposamenak ere euskal-kazetaritzaren alde zihoazen.

Aurtengo urte hau epe berri bat bezala euskal kazetaritzan kontsideratzeko, datu berririk ez da



falta. Sozio-politikazko baldintzen aldakuntzak gainerontzeko guztia aldatzen du, bistakoa denez. Ezaguna da, jadanik, kazetak lehengo motelean ez duela jarraitzerik. Berri-emaile izan nahi den kazetak mugikortasun izugarria behar du orain. Politik bideak zabaltzerakoan, kazeten posibilitateak ere gehiagotu egiten dira. Baimen arazotik hasita opozioko aldizkariak ateratzerainoko aldatzea.

Legeak, edo legea hartzeko moduak, orain posible egiten duelako, euskal aldizkariak ere baimen modua aldatu egiten dute. Orain arte, erlijiozko informazioa soilki eman zezaketenak legez, aurrerantzean, legez, informazio orokorrekoak izango dira. Beraz, lehen eliz-babesean bakarrik posible zena, gero edozein taldek ahalko du.

Kazetaritzaren ingurua ere bapatean aldatzen zaio orain euskal kazetagintzari. Euskal kazetaritzaren faboretan izango ote? Ikusten dena hau da, euskal aldizkariak sortzeko proiektu guti dagoela bazterretan. Askoz ere tentagarriago da erdaraz aldizkariak egitea. Lehiaketa eta norgehiagoka ikaragarria dago alderdi, talde eta joera politikoen artean. Bakoitzak nahi du bere aldizkaria, edo aldizkariaren baten kontrola. Ikusera politikoz ikusten da orain euskal kazetaritza ere, eta ez arestian bezala, kultur ekintza bezala.

Alderdi, talde eta joera politikoen prentsarekiko lehiaketa ikusirik, galde batek ba du hemen lekurik: nork egingo dio jaramonik euskal prentsari? Euskal prentsa ez ote da izango Euskal Herrian aterako den prentsaren **parent pauvre**, etxekorik pobreena?.

erdararen premia.

Zeren-eta, hemen hartu dugun perspektibatik, nork ez du ikusten erdal prentsa abertzalea bera ere euskal prentsaren kaltetan izan daitekeela? Ikusera honetan oinharriturik, zaku berean sar genitzake: **Punto y Hora de Euskal Herria**, **Garaia**, **Berriak**, **Sorka**, denak batean gurekiko hizkuntz desberdintasun bera baitute.



Erdararen beharrik ez dugu ukatzen. Euskal prentsak, orain oraingoz, eta gauzak asko aldatzen ez diren bitartean, eta gauza horik aldatzeko ere, erdararen premia onhartu behar du. Erdara behar da hemengo erdaldunak euskalduntzeko, konzientziazteko. Beharrezkoa da erdara kanpora begira lana egiteko ere.

Baina gure artean erdaraz agertzen diren aldizkariok argi eta garbi esan beharko dute euskal prentsa zer jokabide hartzen duten, nola lagunduko dioten, zeren eta euskal prentsak laguntza behar du. Zeintzuri kenduko dizkiote irakurleak aldizkari hauek: Cambio 16 eta holakoei bakarrik eta euskarazkoei ere bai?.

erdal prentsa euskal prentsaren aurka.

Ez da batere segurua erdal errebistek ez ote dioten euskarazkoei irakurleak lapurtuko. Bai baitakigu euskaldunaren alfabetatze-maila nolakoa den. Beldur izateko modukoa da gerta daitekeena. Euskaldunari asko kostatzen zaio euskaraz irakurtzea. Bata bestearen ondoan euskarazko eta erdarazko textua jarri, erdarazkoa irakurri ohi dela behin baino gehiagotan enfun dugu. Ohiturarik ezari eta zailtasunari motibazioa eta arrazoa kentzen badiogu, erdarak eramango du lehoiaren parte, lehendik ez balu bezala. Euskal prentsari publiko kentzea ez da txantxetakoa.

Eta euskal kazetariak, euskal idazleak? Ezagunagoak izateko, gehiago irabazteko, eta beste mila erraztasunengatik ez ote dute erdarara joko, euskarazkoa astia dutenerako utziz? Harritzen naiz, esaterako, **Garaia**ko plantillan hainbeste euskal idazle, eta hain zuzen euskal aldizkarietan lan egiten dutenak, ikusiz. Jende berria bilatzeko ahalegin gehixeago egitea eskertzekoa litzateke. Euskal kazetari-tza kazetarien premia gorrian aurkitzen denean, adarra jotzea dirudi euskal idazleak erdaraz idaztera bultzatzea. Erdaraz idazteko besteris ez balego bezala!

Etsai objektiboagoa da oraindik ere erdal prentsa beste puntu batetan: publizitatean. Euskal prentsaren azken berrikuntza, neurri on batean, publizitate hartutako diruari esker izan da. Merkaturan agintzen duten publizitate-legeek ez dute eskotan euskal prentsarentzat osorik balio. Esan nahi dugu, publizitatea euskal aldizkari bati ematen diotak ez diola arrazoi beragatik **Cambio 16**ri emango.

Nere ustetan, euskal aldizkariari eman ohi zaion publizitatean bi arrazoi nagusitzen dira, beste guztien gainera, abertzaletasuna eta kalitatezko publiko zaintzea eta horren bidez etxearen "image de marque" delakoa hobetzea. Bi arrazoi hauek berdin funtziona lezake ia osorik erdal prentsa abertzale edo izen oneko batekin. Irakurle berdin xamarra harrapa dezake publizitate-emaileak eta

irudi ona gorde ere bai, eta gainera euskarazkoak har dezakeen baino publiko hedatuagora iritsi. Euskal prentsari, merkatuko ez diren arrazoiengatik gehienbat, benetan atxekia ez den publizitate-emaileak, abertzale izan arren erdal prentsa dena lagunduko du.

Euskal prentsa euskaraz dela aitortu, onhartu eta laguntzen ez duen erdal prentsak diglosia finkarazten du. Aldizkari euskal izenak eta tituluak ez daitezela inoren engainutarako izan.

Hona hemen euskal kazetaritzaren puntu larri batzu. Aztertzeak merezi du, eta aurrez aurre ez ikusi nahia geure buruaren kaltetan da. Erdal eta euskal prentsaren arteko erlazio hau, euskal kazetaritzaren urtea amaitu orduko argitan jarri behar genukeen arazo bat da.

joan altzibar



ARIEH, ZURE GURASOEK HEBRAIERARIK EZ AL ZEKITEN BATERE?.

ZURE HAURRAK, ALDIZ, HEBRAIERAZ MINTZATUKO DIRA.....

ERAGOZPEN ASKO UKAN AL DITUZUE ZEUEEN HIZKUNTZA BIRBIZTEKO?.

ETA NOLA BURURATU ZITZAIZUEN HEBRAIERA BIRBIZTEA?.

HEBRAIERA AINTZINAKO HIZKUNTZA BIRBIZTU BAT DA. NOLA JOKATU DUZUE HITZ BERRIEN ARAZOAN?.

NOLA IRAKASTEN DUZUE HEBRAIERA?.


NOLA DAKUSAZU ZUK, XOVAL JAUNA, GURE EUSKARAREN EGOERA?.



arieh xoval euskal herrian

Ez da egunero gure artean honelako bisitarik izaten. Arieh Xoval Israeleko Estatuko Hezkuntza eta Kulturarako Ministeritzako ordezkari orokorra da, eta aurten Donostiako Apezgaitegian Uztailaren 20tik 22ra elebitasunaz egindako symposiumera gonbidatua izan da, bertan Israeleko esperientziaz mintzatzeko.

Berrogei eta hamar urteak bete gabe oraindik, Arieh Xoval Israelen jaioa da. Gurasoak, orain 50 urte, Kievetik etorri ziren asaba zaharren herrira. Semea bertako judu eskola batetara bidali zuten, hebraiera ikas zezan.



h.: etxean jiddisch hizkuntzaz mintzatzen ginen. Jiddisch hori, dakikeanez, ekialdeko juduen mintzaira berezia da, alemaniera zaharraren gisakoa. Nik neuk bebraiera eskolan ikasi nuen, eta gurasoek niri barik, nik gurasoei

irakatsi behar ukan nien. Beren azken urteetan mintzateko adina ikasi egin zuten, baina hala ere, gure artean, lehenagoko ohitura eta afektibitate giroagatik, beti jiddishez mintzo ginen.

Noski. Gure seme-alabena izan da, oraingo Israelen, gurasoengandik hebraiera etxeko hizkuntzatzat jaso duen lehenbiziko belaunaldia. Gurean, bai senar-emaiteen artean

eta bai haurrekin, beti hebraieraz mintzatu izan gara. Igon, ba daude, gainera, hebraieraz landa beste hizkuntzarik ez dakiten hainbeste haur eta gaztetto Israelen.

Asko izan dira, baina azkenez lortua dugu. Ez dizut ukatuko orain, Estatu propio bat dugun aldetik, horretarako bide ugari eta erosoak ditugunik. Bide tekniko hutzak, ordea, ez dira aski. Helburu argiak edukitzea eta horietaraino ailegatzeko nahia dira gauzarik inportanteenak, ene irudiko.

Theodor Herzl-ek, joan den mendean Estatu judu propio baten lehenbiziko proposatzaileak, ez zuen pentsatzen Israeleko Estatuko hizkuntza hebraiera gerta zitekeenik. Alemana edo eta frantsesa jotzen zituen hark ofizial ezarri beharreko zat.

Hizkuntza propiorik gabe nazio ezaugarri nabariena faltako genukeela berehala konturatu ginen. Hortaz, mende honen hasieran, Ben Jehudak hebraiera zaharra birbizitu eta egungo premiatarako egokitzea pentsatu zuen. Giro ona aurkitu zuen lan horretarako eta hiztegi moderno bat eratu zuen. Batzuk ameslari utopikotzat jotzen zuten hura, baina

berak beti esaten zuen: "Benetan nahi baduzue, ez da hori amets bat izanen". Gure hizkuntza berreskuratzeko, dena dela, ez genuen askatasun egunerarte lo egon. Europan zehar barreiatuak geundenean ere gutariko asko jo eta ke aritzen zen hebrariera ikasten eta seme-alabei irakasten.

Hara.... hebraiera zaharra, semitar hizkuntza guztien antzera, eratorzeko antzu xamarra zen, baina hala ere hitz elkartuak sortzeko gaitasuna du. Hortaz, ahal den neurrian, iturri jatorraz hainbeste hitz berri asmatu zuen Ben Jehudak, baina ez zen horretatik hertsiegi ibili. Hitz internazio-

nalak ere eurrez onhartu zituen: **telefono, Biologia, Khimia, Botanika, kafe, garage.....** kasurako. Garbizalekeriarik ere ez zaigu falta izan, baina gehienetan Herriak berak baztertu egin ditu holako hitz arraro eta kakophonikoak.

Lehen, zuen moduko ikastoletan ari ginen, medio baino borondate on haundiagoaz. Hortaz zera esan behar da, irakasleek ohi ez bezalako lana egin dutela gure nazio hizkuntza birbiztean. Gaur ikus-entzuteko sistimez baliatzeko era dugu, baina denbora tzarragoetatik ere ibiliak gara. Helburuak garbi eta horietaraino heltzeko gogoia da printzipalena,

nik uste. Orain dela berrogei ta hamar urte, 100.000-k zekiten hebraieraz egiten. Israeleko Estatu sortu zenean, aldiz, 1.948-ean, jadanik 400.000 lagun ginen mintzateko beste genekienok, eta gaur egun, azkenik, Israeleko hiritar guztiok dakigu, hirur milioik inguru, halegia.

Egunotan euskaldun askorekin egon naiz eta hemen Israeleko neure gazte denborako giro berbera nabaritu dut. Xeduek, helburuak, argi dituzue; ba dakizue nora joan behar duzuen, eta horretarako gogoia ere ez zaizue falta. Horrela segituz gero, zuek ere zeuen ametsa lortuko duzue egunen batez. Horretan izpirituz zuekin nago. Kennedy presidentek Berlin bisitatu zuenean, bertakoei esan ziena datorkit burura: "Ich bin ein Berliner" (ni ere berlindar bat naiz);

nik neuk berdin esan diezazueket: hizkuntzaren aldeko burrukan zuekin naukazuela; ni ere zuen arteko euskaldun bat naiz. Ekin eta aurrera, lagunok!

Mila esker Erieh Xoval jauna zure adorezko hitzengatik. Ai ledi lehenbailehen zure itxaropena bete! Xalom velehitraot! (Agur eta ikusi arte!)

donostiako hauzo elkarte goraberak

Donostian ere, dudarik gabe, hauzo elkarteek hutsune handia betetzen dute. Udaletxeek herrikoetxe izateke, interes partikularrek bultzatuta ibili dira eta dabilta. Oker hau zuzentzera datoz hauzo elkarteak, administrazio ofizialaren lekuan herri administrazio bat eratu nahiez.

Halere, Iruinean baino suerte hobea dugu Donostian, han azken Anaitasuna aldizkariak zioenez, lau hauzo elkarte baitaude soilki legez onhartuak, hauzolanean hamasei ari badira ere. Egiazko demokraziak herri demokrazia bat behar du izan, base edo oinharritik, behetik eratzen dena eta hau lortzeko langile batzordeek, hauzo elkarteek eta herri batzarrek alderdi politikoek baino ere garrantzi gehiago dute herri demokrazia baterako garrantia bezala.



Antiguako Martxa dela ta

Denok ezagutzen dugu Antiguako martxaren berri, 50.000 lagunek uztailak 3 eratutako ibilaldi handi, baketsu eta legezko hura. Baina, hemen ibilaldi horren inguruan sortutako gorabera batzu aurkeztu nahi ditut, ahal dudan informaketa berezkoenaz. Hasiera batez Antiguako hauzo elkarteak eta alde zaharreko Hauzoak ekin zuten martxarako organizazio lanetan. Antiguako Hauzo Elkarteak ordea, hauzoko beste elkarteekin kontatu behar zuen eskuin indarkerien aurkako antolaketa hone-tan, eta Jakintza Ikastola elizako elkarte eta Peña taurinak hala baldintzatuta noski, Antiguako hauzo elkarteak hauekin beste fronte berri bat eratu zuten, alde zaharreko Hauzoekin organizazio lane-tan etenez. Beraz, azken orduan ibilaldiaren anto-laketa Antiguako elkarteek beregain hartu zuten, eta Hauzokoek haserre ziren Antiguako Hauzo elkarteak egin zion desplante zatarragatik. Ondorioz eta geroztik hauzo elkarte mailan bi kritika agertu ziren, bata alde zaharreko Hauzoak Anti-guakoari eginiko eskutitz zorrotz (egi)a eta bestea Añorga Txikikoena. Lehenik aipatutako eskutitz irekiak gaizki adituen azpitik (abertzale-estatalista) diferentziak gordetzen baditu ere, Añorga Txiki-koari lotuko natzaio, nire eritzi koxkorrean, mami-tsu eta bortitzagoa delakoan.



Añorga Txikikoen kritika

Hauzo elkarteek behetik sortu badira eta herritarrak izaten irauteko goitik edo kanpotik edo beste hauzo batetik datorren iniziatiba neurtu edo aukeratu egin beharko da politik mugimendu eta zenbait interesen olatupean ez galtzeko. Horregatik, eta hauzo elkartearen egitekoa benetan betetzeko, hauzoko arazoak eta hauzotarrek eraman beharko dituzte arazo horik. Baina, ez da batere erraza, batez ere, guztiori dagozkigun herri arazo orokorrak jasotzeko eran. Dena dela, arriskua zeran datza, hauzo elkarteek hauzoko prolematikari lotzeke (eta hauzotarren eritziarekin kontu gabe) edozein iniziatibari baiezkua ematea, adibidez, Antiguako ibilaldia Antiguako elkartearen (edo berdin izanen zen Alde zaharrekoekin batera ere) organizaziopean beste hauzoek parte hartzeke, sartzea, ez da noski benetan demokratikoa, arazo hori ezpaita hauzoan ez sortu, ez bere antolaketan parte hartu ere.

Bi arriskurekin aurkitzen gara, beraz, hauzo elkarte mailan, alde batetik, hauzoak (edo hauzoko gehienbateko eritziak) hauzo elkartearen tokirik ez izatea, edo eta hauzo elkartearen jendea erakartzeko gauza ez delako edo hauzo elkartearen taldearen batek erabiltzen duelako. Eta, beste arriskua gaurko politik eta sozial egoera larri honetan hauzo elkarteaz (benetakoa herrigintza izateke) halako talderen bat bere interesen plataforma bezala baliatzea.

Eta holako zerbait gertatzen da zenbait deklarapen izenpetu behar direnean ere, interesgarriak berez, baina hauzo elkarteetako batzordeek edo zuzendariak basearekin diskutitu gabe firmatzen dituztenean.

Hauzo elkartearen artean gauza bikainak anto-

latu dira, halere, bide egokiagoen faltan antolatu badira ere, Arestiren Omenaldia, Antiguako Ibilaldia, eta azkenik Foruen Mahai Ingurua eta Antiguako Elkarteak eraturako Foruei buruzko hitzaldi saioa, beharbada, orainarterakoan antolatu diren onenak.

Elebitasunaren aldeko batzarrak

Heziketa Ministergoaren aurrean Gipuzkoako irakasleek (hauzo elkarte eta beste kultur taldeekin batera) elebitasunaren aldeko gestora bat eratu nahi eta batzar baterako da hauzo elkartei azkenik egin zaigun dei inbitazioa. Nik oso ongi ikusten dut irakasle talde honen planteamendua, alegia, mementuko eta lehen pauso bezala Gipuzkoako ikastetxe orotan (eskola ta institutu) euskerari obligatorioki sartzea, eskola ordu barruan, irakasleak Heziketa Ministergoak ordainduta eta hori guztiori datorren ikasturterako. Hau, jakina, lehen pauso bat besterik ez da, euskerari Euskal Herrian irakaskintza eta bizitza osoan dagokion lekua kontutan hartuta, baina, gaurko egoeran pauso handia izanen da, alde batetik maximalista izan behar badugu, bestetik errealista behar dugu izan, eta pauso hau emateko denok alkarren beharrean aurkitzen gara. Batzarrean aipatu zigutenez irakasle talde hau, batez ere, irakasleen sindikatuan dabilzatenak dira, baina hauzo elkarte, kultur talde, ikastola federakuntza eta beste taldeekin konformidadean batzorde bat eratu nahi dute Heziketa Ministergoaren aurrean indarra pausoz pauso egiteko, eta nik jokabide hau, eroso eta positibotzat jotzen dut, eta beraz, ez bakarrik lagundu baizik parte hartu eta bere antolaketa erabakitzea prestatu behar genuke.

Alex

EUSKAL HERRIAN

FLUOROSISAREN AURKAKO MANIFESTAZIOA MUNGIAN

Agorrilaren 1ean, igandea, hamabiak jota, bospasei mila pertsonatako manifestazio bat egin zen Mungian, fluorosisaren arazoaren aurrean beren jarrera agertuz.

Dakikezueenez, Mungia aldean, hainbat baserri-tarrek kalte handiak pairatu dituzte eta pairatzen ari dira, fluorosisaren kausaz. Ferro Emael izeneko lantegia da erruduna. Baina, nahiz eta inguru horretan fluoroa erabiltzen duen lantegi bakarra berori den, bertako agintariek ez dutela ezer poluitzen diote, eta bide horretatik abiatuz, ez dituzte baserri-tarrek indemnitzatu nahi. Azken hauei gertatzen zitzaien irtenbide bakarra, manifestazioa zatekeen.


Jendearen egintza ordenarik handiengan gertatu zen. Behin Udal Etxe aurrean helduz, "Camara Sindical Agraria" delako elkarteko sekretariak COSA-ko lehendakariari emanen zion gutuna irakurri zuen euskaraz eta espainolez. Aipatu elkarteko lehendakariak, gutun hori Mungia, Maruri eta Gatikako alkateei eman zien.

Orduan gauza bitxi eta interesgarri bat gertatu zen. Jendea "Agertu alkatea" oihuka esatera hasi zen. Alkatea balkoira irten eta espainolez hitz egiten hasi zen. Jendea, oihuka, "euskara", hots euskaraz hitz egiteko. Eta egin egin behar. Interesgarria benetan.

Problema larria da benetan. Jadanik 130 baserri-tar ari dira egoera hau jasaten eta hirurehun baino behi gehiago daude kutsaturik. Horretaz gainera, baso, soro eta baratzeetan eginiko kalteak ere eduki behar dira kontutan. Pinadiak dira kalterik handiena jasaten eta pairatzen dutenak.

Problema hor dago, ebatzi egokiaren zain.

J.R.Etxebarria



Donostiako **La voz de España** egunkari mugimendutarrak desafio izugarria bota die gipuzkoarrei. Gipuzkoarren (benetako gipuzkoarren) irudimenari deia ("La Voz" delako, antza denez) egin zaio. Gaia: **Ikurrin berria** (hori "de España" delako, izango ote?).

Gaurkotasunaren atxakiaz, deiturabertzaletasunari jarraikiz, jostailu berri bat asmatu nahi dute zenbaitzuk (Zergatik orain, hain zuzen, jostailu "apolitiko" hori?).

Ikurrin hori bi koloretan oinharrituko dateke: zuria eta gorria (Real-ekoak zuri-urdinak ez al dira ba?). Gero **Pais Vasco** osoan zabaltzeko asmoa ere agertzen dute, horrela **vasco** guztien bandera "zaharra" bihur dadin. Amen.



Zertarako berotegi bat?

- Uztak aurreratzeko.
- Zure lurrok errentagarri egiteko.
- Landarak eguraldi txarretatik (aize, elur, hotz, txingor, eta abarretatik) zaintzeko.
- Eguraldi txarrez ere bertan iharduntzeko.
- Zure uztok planifikatzeko.

Zergaitik **negutoki**

- Zortzi metro zabal eta nahi duzun luzera duelako.
- Arin eta merkea. Ez du soldaketarik ez torlojurik behar. Zeuk eraiki dezakezu.
- Ez du ormigoizko zapatarik ez beste oinarririk behar, lur gainean eraiki zenezake.
- Darabiltzagun hodie. (tubuek) uherraren kontrako tratamendua dute.
- Gainera plastiko arinezkoa duzu, ez du metal egituraz zer ikusirik, ez eta inolako josirik.
- Gure lurrotan 120 K/horduko ederto eutsi ditu.
- Eguraldi hotz hotzetan, barruko tenperatura konpkoa baino 6° C goragokoa du.

Eskatuz gero, beste hauk har zenitzake:

- Ureztapen sistema osoa.
- Elur aurkako indargarriak.
- Aire aldatzaile erdiautomatikoa.

...eta honez gainera, berotegiari emaitza
hoberenak ateratzen, lagunduko zaituen
teknikoak ditugu.



negutoki



AMETS, S. L.
Carretera de Larrazabal, n.º 13
Teléfono (94) 672 01 05
Apartado 29 - LLODIO (Alava)

MUNDUAN BARRENA

MANIFESTAZIO BAT BURGOSEN

Ez zaitezte harri, euskaldunek egin baitzuten Burgoseko manifestazio hau. Hamabi euskal preso politiko direla eta, Burgoseko gartzelan (Bizente Gurrutxaga, Josu Apalategi, Jon Mikel Goiburu, P. Ignazio Perez Beotegi, Mariano Ibarren, Karlos Agirre, Emilio Goitia, Benito Mendizabal, Joxe Mentxakatorre, Imanol Albisu, J. Ignazio Mujika Arregi, Martin Etxeberria), Agorrilaren 16an preso hauek presondegi honen zuzendari den Ramon Santillana jaunari buruz duten mila kezka, idazki batez, ezaguterazi zuten. Idazki hau Espainiako Justizi Ministroari eta "Instituciones Penitenciarias" eko zuzendariari bidali-nahi izan zieten, beren helburua lortu gabe, ordea. Idazki hau, halere, gartzelatik kanpora ateratzea lortu ondoren, beraien familiak hartu zuten kexa hauk ezaguterazteko lana. Horrela antolatu zuten, Agorrilaren 29rako, Burgoseko katedralaren alboan, manifestazio bat. Igande horretako goizeko hamaiketan berrehunen bat lagun elkartu ziren toki honetan. Bereala agertu ziren poliziak eta, tentsio une batzuan ondoren, familiakoek idazkia gartzelan ematea erabaki zuten.

Gartzelako bidean, kilometro bat falta zela, polizi automobil batek kontrola jarri zuen eta euskal automobilen txoferren karnetak eskatu eta matrikulak apuntatu zituen. Gartzelara heltzeko ehun metro falta zirenean, presondegi barrutik goardia pila bat agertu zen, sekulako "aparatuaz". "Director, dimite" garraisi egin ondoren, bost gartzelaturen amak goardien teniente batekin elkarikusketa "bero" bat izan zuten eta gero familia guztiak berriro Burgosera bihurtu eta Gobernu Zibilerara joan ziren. Bide honetan "Berriak" aldizkari-ko bi argazkilariei egindako argazkiak hondatu zizkieten goardiek eta baita "Diario de Burgos" eko kazetari gazte baten notak apurtu ere.

Gobernu Zibilean familiakoek Gobernadorearen ordezkoiari idazkia eman zioten. Esan digutenez, Gobernadorearen ordezkoi honek ederki onhartu zituen familiarrak.

Hurrengo lerroetan, hitz laburrez, Burgosen

dauden hamabi euskaldunen hexak eta eskakizunak aurkituko dituzue. Presoek egindako idazkiak, berez, lau folio ditu.

PRESOEN EGOERA LARRIA

1.—Egunean hemeretzi ordu terdi beren geletan egon erazten die.

2.—Aldizkari politikorik ez da Burgoseko gartzelan sartzen. Burgoseko zuzendariak dioenez, "As" eta "Marka" ere debekatzekotan dago, "oso pornografikoak bihurtzen ari baitira". "Cambio 16" ez die gure presoek uzten "kalte morala" egiten baitie presoek.

3.—Euskal presoek ezin dute ez iganderoko mezara ez eta zinera joan, beste preso guztiek egiten duten bezala. Zinea astero bi aldiz izaten da.

4.—Familien bisitetan ezin dute euskaraz hitz egin ez eta normalki hizketan egin ere, garraisi baizik, funtzionari baten begipean.

5.—Janaririk ezin da sartu, ez bada prestaturik eta lagun bakar batentzat gertua. Gailetak, txokolatea, fruituak, tomateak etab. debekatuak daude. Hau presondegiko "Economato"an gauzak eros ditzaten egiten da, baina "economato"an gauza gutti eta txarrak aurkitzen dira eta, gainera, hiru hilabete lehenago eskatu behar dira.

6.—Barruan Zuzendariaren ordezkari bati agertutako kexek ez dute erantzunik izan.

7.—"Seguritate"aren izenean Zuzendariak presoek eskubideak zapaltzen ditu egunero. "Seguritate" atxakiaz, biboteen luzeera ere mugatzen du.

8.—Geletan ez dago ez mahairik ez armairurik. Arropak eta liburuak lurrean utzi behar dira. Ez dago kalefakziorik. Argia oso gutti da eta edateko ura kaltegarria, hibaitik zuzenean eta filtrorik gabe hartutakoa baita. Gure presoek ezin dute doinutresnarik izan eta estudioak debekatuak daude.

Gure presoek eta beraien etxeok eskatzen dutena hauxe da: egoera larri eta bereizgarri honi amaiera ematea.

X. A.

ITALIAKO GOBERNU BERRIA

Azkenez, hilabete baino luzeago eman eta gero, Italiako gobernu berria osatu da; Andreotti kristaudemokrataren zuzendaritzapean, eta Leone Jaun Lehendakariaren onspenaz sortu da gobernu berri hau. Hainbeste luzatu da kontua, ezen behin Berlinguer, Italiako Alderdi Komunistaren idazkaria, Biltzarretxeko barrera joan zela, maiz egiten ez duena, zera itauntzera Galloni jaunari, biltzarkide kristaudemokraten idazkariari, ea noizko zukeen prest Andreottik bere gobernu.

Zenbaitek Andreotti komunisten eskutan egon dela uste du. Argi dagoena zera da baina, Demokrazia kristauarekin batera orainarteko gobernuetan parte hartu duten erdi-ezkerreko alderdiek, beren lanean plausta plausta ibiltzean erantsi zaien bekorotza, era batez ala bestez, behin betiko uzteko prest daudela, bizi izanen badira, behinik behin. Hori da kristaudemokraten idazkariak, Zaccagnini-k, zioena, beraiek beste zikinez, errepublikarrek, sozialdemokratek eta sozialistek lohitu dutela Italiako Errepublika. *Il Giornale Nuovo* ren berbetan: errepublikarren eta sozialdemokraten *neurosia*.

Gobernu berria datorren bezala osatua dago:

—Giulio Andreotti: Lehen ministroa.

—Tina Anselmi: Lan ministroa.

—Antonio Bisaglia: Industria Estatalen ministroa.

—Paolo Bonifacio: Justizi ministroa.

—Francesco Cossiga: Barne ministroa.

—Carlo Donat Cattin: Industri- eta Merkatalgo ministroa.

—Francesco Fabbrì: Itsas merkatalgorako ministroa.

—Luciano da Falco: Osasun ministroa.

—Arnaldo Forlani: Atzerritar arazoetarako ministroa.

—Antonio Gullotti: Lan publikoetarako ministroa.

—Vito Lattanzio: Defentsa ministroa.

—Ciriaco de Mita: Ministergorik gabeko ministroa (hegoaldeko eskualdeen arduraduna).

—Franco Maria Malfatti: Hezkuntz ministroa.

—Tomaso Morlino: Planifikazio ministroa.

—Rinaldo Ossola: Kanpoko merkatalgo ministroa.

—Filippo Mario Pandolfi: Finantzi ministroa.

—Attilio Ruffini: Trafiko ministroa.

—Gaetano Stamatì: Altxor ministroa.

Lehenago 21 ministergo zeuden, orain 19.

Ez da berau kontutan har daitekeen erreforma. Partaideez denaz bezainbatean, kristaudemokratik direla denak alde aurretik emanda, dena esanik dago. Teknokrata bi, arazo ekonomikoetarako; eskuindarrak, hiru behintzat Fanfaniren aldekoak;

bost bat, alderdiaren ezkertiarak, eta noski Andreottiren jarraitzaileak, alderdiaren erdikoak edo. Lan ministroa, Italiako kondairan ministro izanen den lehen andrea da, Tina Anselmi, 49 urte daukana, eskolirakaslea, gerlan erresistentzian ibili eta gero, azkeneko urteotan burruka sindikaletan ezaguna. Forlani, berriz, kanpo ministroa, politika atlantikozalearen habea dateke. Pasadizuen mailan honetaz ohar gaitzke, barne ministroa, Cossiga, Berlinguer-en lehengusua izateaz.

Gobernu hau sortzeko, gutiengo-gobernu, gertatu direnak ez dira makal.

Aipatzekotan, zalantzarik gabe, Schmidt-en hitzak izan behar dira, agian Italian jazoa, eta jazotzeko zena, aldatu ez dutenak, kanpotik begiratzat behintzat, baina bai zertxobait eragin, Demokrazia Kristauren eskumari indarra eman dion neurrian.

Alemaniano egunkariek ziotenez, Europa osoa jalki zaie "alemani" aitz. Eskumako eguneroek, Alemaniak bete ohi duen biktima papera erabili dute ahotik hortzera. Ezin esan, neurri batez, Alemaniaren lepoan, askok bere burua zuzenetsi ez duenik, baina arazoaren zama horretan ikuseraztea, ene aburuz, Schmidt sozialdemokratik defendatzen dituen interesen aldeko beste burrukera bat, ederragoa, besterik ez da. Ez dugu frantses nazionalistarik erakarri behar, hala nola Debré Jauna, baina argi dago, hauteskundeak datozelako Alemanian, Schmidt-ek berak, eta Europako beste ministro eskuindar eta sozialdemokrata guztiek pentsatzen dutena, oraingo abagadune honetan helburu bi lortu dituela, batetik pentsatzen dutena esatea, eta bestetik Alemanian SPD-ri, Alderdi Sozialdemokratari, kontra egiten dion CDU-ri, eta darabilen esaldi propagandistikoari kolpe gogorra jotzea. Beronen esaera: Askatasuna ala Sozialismoa.

Berrogei urtetan Italian eskuina boterean egon delarik ezer ez dute Alemaniako sozialdemokratek esan. Nondik datorkie bada, oraingo beldur eta grina? Alderdi komunistek darabilten bulegokraziatik, ala azken batetan kapitalismoaren administratzaile gizatiarrenetarikoak izatetik? Tamalgarría. Agerian dago defentsan eta zemaletan daukala kapitalismoak irtenbide bakarra, lralak bere "bat bitan banatzen da" delakoan ederto esan bezala. Eta tanalgarría halaber, klaserik gabeko gizarte baten alde, teoriáz dauden batzu, oraingo sozialismo ereduak ez onhartzearen, askok ontzat ematen ez ditugun moduan, askatasunaren aldeko burruka aurrera ateratzeko gogorik ez argudiorik ez ukatea.

Andolin Eguzkitza

ZENTRAL NUKLEARRIK



Agorrilaren 29an, Euskal Herrian Iberduerok jarri nahi dituen nuklear zentralen kontra manifestazio bat izan zen. Plentzian. Manifestazio "baimendun" honetan 20.000 lagunek hartu zuten parte.

Manifestazioa Plentziako plazan hasi zen eta bertako hondartzaren inguruan dagoen zabalune batetan bukatu. Goizeko hamaiketan, Plentziako udaletxe aurrean, egin ziren lehen pauso eta oihuak. Ofizialki emandako baimena ordu bakar batetarako zen eta horregatik ibilaldia oso puntualki hasi zen. Hogei mila lagunuen aurrean Euskal Herriko lagun oso esagun batzu jarri ziren: Txillida eskultorea, Ruiz Balerdi, Aya Goñi e.a. Zenbait pankarta ere ikusi genuen, itsasaldeko eta Euskal Herriko herrien kexak ageriaz. Hara hemen pankartetan irakurritako kexa batzu: "Abertzaleek ez dute nahi Zentral nuklearrik Euskadin.K.A.S.", "Euzkadik ez du nahi beste Hiroshima bat", "Ea, ko herria zentral nuklearren aurka", "Zergatik Euskal Herrian industria zerri guztiak?", "Centrales de interés de los capitalistas en contra del pueblo", "Euskal Langileen Sindikalgintza Zentral Nuklearren kontra". L.A.B. Amorotok, Zarautzek, Debak eta beste zenbait herriek ere beren pankartak ere agertu zituzten. Nafarroa eta Araba ere han egon ziren. Lemoitzeko zentrolean lan egiten duten langileek, beste letrero batez zentralaren kontra dardela zioten eta herriaren alde. "Por un trabajo digno", zioten langile hauek.




IKURRINAK

Manifestazio barruan bi ikurrin ikusi genuen eta gu bezala helikoptero batetan manifestarien buru gainetik pasatzen ziren goardiek. Nahiz eta manifestazio ingurutan goardia gutti ikusi, helikoptero honek egindako pasada baxuak —une batzutan manifestazio gainean geldi-geldi eta berrogeita hamar metro garaitara jartzen baitzen— manifestarien kexa eta oihuak sortera zuten, helikopteroa ikurrinaren gainean jartzen zenean batez ere.

Ibilaldia, gure ustez, politikoki egin zen eta eguerdirako amaitzeko zenez azken orduan jende guztiak presaka eta korrika egin behar izan zituen azken metroak, lautadara garaiz heltzeko.

Ibilaldian eman ziren oihuak hauek izan ziren: "Ez, ez, ez, nuklearrik ez", "nuklearrik ez, amnistia bai" "Ez, ez, ez", txaloz horniturik. Ez ziren "Slogan" asko entzun eta une batzutan, aurrealdean behintzat, giro txepela izan genuen. Ibilaldia aurrera zihoala, halere, giroa sakon eta beroagoa egin zen.



Hamabitan, manifestariak lautadan eseririk zeudela, euskaraz eta gaztelaniaz zentraleri buruz egindako idazki bat irakurri zen. Idazki honetan herriak nola arazo honetan ez duen parte hartzerik izan agertzen zan. Bertan ere, Iberduerok izan duen axolagabekeria galanta salatzen zen, Administrazio Zentrala eta Bizkaiko Diputazioak lagun, Lemoitzen bere zentral nuklearren lanak aurrera eramatean (gaur zentral honetan bi errektore ipinita daude eta hirugarren bat jartzekotan). Izpazter-Eako proiektuak ere salatu ziren, beren arrisku mugagabeak (bai gizon, animalia eta landareentzat) ere agertuz. Eskakizun garrantzikoena hau izan zen: Lemoitzeko lanak orain geldituak izan daitezela eta egindako proiektuak ukatuak. Dakizuenez, Guipuzkoako herriak egindako presioei esker Gipuzkoako diputazioak Debako zentralen projektuei uko egin die.

ANTOLATZAILEAK DIPUTAZIOARI GUTUN BAT

Nortzu izan ditugu manifestazio honen antolatzaileak? "Euskal Itsasalde Nuklear" baten aurka jotzeko elkartu diren zenbait herri-talde. Hara hemen Bizkaiko Diputazioari bidalitako gutun luze baten sinatzaileak: Lekeitio, Ondarroa, Elantxobe, Mundaka, Santurtzi, Bermeo eta Armintzako Arrantzale Kofradiak; Ea, Lekeitio, Mungia, Deustu, Gure Etxea, (Gurutzeta), Durango, Ermua, Trapaga (San Salvador del Valle), Errekaldeberri, Basurtu, "Nuestro Pueblo" (Sestao), Lamiako, Romo, Erandio, Portugalete eta Elexaldeko (Leioa) Famili Elkarteak; Lemoitzeko "Gure - Mendi" eta Bilboko Rodriguez Arias 31. etxeko jabe komunitateak; "El Desván", Lutxana, Jata (Mungia), Plentziako "Gaminiz", Ermuko "Arce", eta Mungia "Anaitasuna", "Elkartasuna", C. Mungia, "Gure-lze", Pilota eta Uriona elkarteak. Oso luze joko liguke lerro hauetan beste sinatzaileak nor-

tzu izan diren jartzeak. Beren artean era guztietako profesional, elkarte eta izen ikusten dira. Bermeon, adibidez, bost izan dira sinatzaile taldeak.

GUTUNAREN LABURPENA

Bizkaiko Diputazioari bidalitako gutunak hamabi horrialde ditu. Bertan Diputazioa Lemoitz eta Izpazter Ean egindako irregularitate guztien erresponsable egiten da eta Lemoitzen egindako zentralaren aurrean izan duen isiltasuna salatzen. Probintziako elkarte ofizialen isiltasuna garbi agertzen da ere. Delako projektua geldierazi dituzten arrazoiak berdin balio beharko zuten Lemoitzeko lanak eta Izpazter-Eako proiektuak gel erazteko. Debako projektuen aurka hauxek izan ziren arrazoiak: —Debako lurraldeak gero eta bizilagun gehiago izango ditu, bere kontzentrazioa handituz. Hau berbera gertatuko da Lemoitz eta Izpazter-Ean. Bilbo ere alde horretarantz handitzen doa.

—Iberduerok ez zituen egin Deban —ez eta Lemoitz eta Izpazter—Ean ere alternatiba moduko lanik.

—Iberduerok ez du gure lurraldeei buruz estudiorik egin.

—Iberduerok ez du emergentzi mementu batetarako estudiorik egin.

—Errefrigerazio arloan, Iberduerok hemen erabili nahi duen sistema Estatu Batuetan ukatua izan dena da, itsasoko urentzat kaltegarri baita. Sistema hori gure ondartzentzat ere oso kaltegarria izanen litzateke.

—Gipuzkoako Diputazioen salakuntzetan ere Iberduerok Geologi, Hidrologi, eta Ozeanografi mailak ia alde batetara utzi dituela ikus dezakegu.

Iberduerok Gipuzkoan agertu duen irresponsabilitatea Bizkaian ondorio okerragoak izango zituen, gutun honek dioenez, eta gainera Iberduero eta zentraleri buruz sortutako mesfidantza etorkizu-

nean handituko dela dio. Gai hontan psikologi aldeko arloak ez dira ezezagutu behar.

Zentral hauen ondorio txarrak Euskal Herri guztiari ukituko zion. Amaieran gutunak euskal komunitate guztiari egoera larri honen aurka jotzearen dei bat egiten dio. Nahiz eta Iberduerok milioi batzu Lemoitzen gastatu, honek ez du herriaren erantzunentzat oztoporik izan behar. Herriak legeak bete erazi behar ditu eta gainera, ea zentral hauk berarentzat onak edo txarrak, komenigarri diren ala ez erabaki. Noizbait Bizkaiko Diputazioak estudio hauk egiteko asmoak agertzen baditu, herriaren ordezkariak deitu beharko lituzke beren eritziak ezagutzeko.

Diputazioari gutun hau Administrazio Zentralera bidali dezala eskatzen zaio.

X. A.



Argia ezinbestekoa den tokian, **SAFT**URA bat ezar. Berezko argia du.



URA B-30



URA LR-206



URA GENELUX-3000

Jantoki, iraganbide, ikasgela, botikin, zaingela, eskailera,
logela eta antzekoetan,
SAFT-URA emergentzi argigailuek beren segurtasuna eskaintzen dizute.

SAFT-URA-k pilagun argigailutan aukerarik ugariena
dauka: aldizkakoak, semaforoak etab...

SAFT

IBERICA, S. A. Artapadura, 11 - Tfnoa. 26 17 00 - Gasteiz

Jadanik

105 bulego ditugu prest zuretzat
eta, gainera, 50 zerbitzu ezberdin
baino gehiago; guztiok zuri
eskaintzeko.

Baina, hala ere, gehiago jaso nahi ditugu
Eta lortuko ditugu.



Hemen irabazi guztiak zuretzat dira

“GARAIA”REN GEROKO “GEROAREN” ERREDENTISMOA

Poze hartu dut euskaldun bezala GARAIA izeneko astekari berria. Dударik gabe euskal prentsak duen hutsune nagusia betetzera dator. Astekariaren asmoa “*revista de opinión vasca*” izatea da. Hori guztiori egia eta oso txalogarria. Aldizkari honen Euskal Herriko jendeak duen informaketa baten gosea ase nahi du. Baina nere galdera da, noren gosea, Euskal Herriko “*vascoena*” bakarrik? Euskaldunek (euskaradunak ulertu, noski) jai al dute?.

“Garaiaren” monocastellanismoa zenbaitzuren EUZKADIKO **vasquismo** “erromantiko-folklorista” batean ez ote da funtsatzen? Neure kritika bide hortatik egin aurretik, balioztatzen dut positiboki haren horien trinkotasuna eta zenbait artikuluen mamia. Foruen lana ongi dago, baina astekari batean halako monografia luzeak agian ez; dena dela artikulua trinkoak dira. Formatoaren aldetik airostasun gehiago eskatuko nioke...

Esan dudanez nere gaurko gakoa beste toki batetik doa; beraz, EUSKAL HERRIAK gaur sentitzen duen kultur kontradizioen aldetik begiraturik GARAIAREN jokabide (kasik gaztelanofonoa) zeharo defraudatu nau... Dirudienez delako EUSKAL ABERTZALE KONBERGENTZIA bateko zenbait jenderen abots emale bada, nolatan erori zaigu GARAIA “*aberchaletasun folkloriko*” horretara? Denok dakigu zenbait “*aberchaletasun*” folklorikoen jokabideak zeintzu diren. Jokabide horik aspaldi entzundako “geroko geroaren” erredentismoa finkatzen dira. Dialektika hori sofisma bat da, ihesketa bat praxian, edo eta posibilismo arriskugarri bat, gutienez...

“Politik erreboluzioa egin ondoren euskartuko dugu EUZKADI” esateak **injenuitate** handia darama; era berean komoditate handia da hau esate

“*Soy muy abertzale, yo no sé vascuence, pero mis hijos ya aprenderán..- Edo eta “Primero la revolución política y luego la cultural”... Holako pentsabideetan ezkonprometatu nahia, irredentismoa, eta azken finean **injenuitate** handi bat dago...*”

Dirudienez, GARAIAK **praxian** dituen “*abertzaletasunaren*” ideiak eta nireak ez dira guztiz berdinak. Akusazio hau publikoki baita ere PUNTO Y HORA hamabostekariari doakio. Noiztik “PUNTO Y HORA” de EUSKAL HERRIA? Astekaria, ia osorik, Herri honi milaka urtetan arraro izan zaion hizkuntzan gure problemak emanez ari da. Ez, ez, ez, EUSKAL HERRIAK, jaunok, koordenada antropologiko batzu ditu, eta zuen EUZKADI hori EUSKAL HERRIAREN koordenada kulturaletan ez bada ezartzen, nik ez dut zuen “*abertzaletasun*” folkloriko horrekin ezer ikusi nahi. Dударik ez dago gure “*funtsa antropologikoa*” salbatzeko politika egin behar dugula, “*errebindikazio sozialak*” egin behar ditugula. Are gehiago, ni osoro konbentziturago, azken finean, euskararen benetako soluziobidea POLITIKATIK etorriko dela, baina ez edozein politikatatik... Gaur egun burruka ez da egin behar POLITIKA mailan bakarrik, fronte kulturalen ere bai, “geroko geroa” utzirik. Burrukak osoa, integrala izan behar du, hau da, a) Politikoa, b) sozial-igualitarista c) kulturala. Hiru kondizionamendu horik bereizten, edo eta alkarlotzen ez badira, gure herria halako “*desbideraketa nazional*” batera ailegatzeko arriskuan dago. Politika frontean kultural (euskararen ofizialtasuna bereziki) balioak ez baditugu errebindikatzen guk lortuko dugun herria EUZKADI entitate “*geografiko-administratibo*” bat izango da, “*vasco*” izena edukiko duena, baina inolatan



ere ez "euskalduna". Askoren EUZKADI horretan euskarak EPIFONEMO bat dezal dirau, EUZKADI horrek ez du EUSKAL HERRIA autoizendatzeko eskubiderik izango, desbideraketa "munstrual" bat izango delako. Beraz EUZKADI izenak ez du EUSKAL HERRIAREN semantika berezi eta antropologikorik. Gure herria milaka urtetan autodefinitu eta autoizendatu da "euskaraz mintzo den Herri gisa". Dakigunez literalki EUSKAL HERRIA ez da itzultzen "PUEBLO VASCO", baizik-eta "PUEBLO QUE HABLE VASCO" bezala. Gure herriaren etimologia jakin behar dugu, Era berean "vascoaren" korrespondentzia ez da etimologiaz "EUSKALDUNA". Hizkuptzalarien esanetik ba dakigu "euskalduna" EUSKARA-tik datorrela, eta bere semantikak hau adierazi nahi duela literalki: "euskaraz egiten duen laguna".

Uste dut gure kaletan "Gora EUZKADI" oihua botzatzen duten askok osoro funts desberdinak ematen dizkietela gure herriari eta etorkizunari, sozial eta politika mailatik aparte. EUSKAL HERRIAREN antropologi balioek duten koordenatatik urrundutako EUZKADI bat eraiki nahi badugu, **akzidentalismo** batera goaz. EUZKADI horren funtsa eta entitatea guztiz administratibo-geografikoa izango da. EUZKADI hori heresia galanta litzateke gure asaben pentsakeran; aintzinakoek ez zuketan horrelako nazional entitate batean pentsatzerik nahi izango. Zergatik? Erantzuna erraza da, EUZKADI hipotetiko horrek EUSKAL HERRI deitzeko eskubiderik ez lukeelako mamia "kulturalak" kenduz gero. Argentina edo Irlanda bezalako Estatu administratibo-soberano" bat besterik ez litzateke.

GARAIA irakurtzekoan horrelako pentsamenduak datozkit, eta ba dakit GARAIKOAK ez direla "sukurtsalista" denigratu horietakoak. Baina "Abertzaketasunaren praxia" nola egiten dugu?.

Ba dakit GARAIAREN erantzuna zein izango den. Erantzun hori bere editorialean dago. Barkatu baina ni ez naiz EUSKAL HERRIAN euskal monolinguisimo bat ezarri nahi luketen horietakoa; hori utopia hutsa da gaurko egoeran; geroago bai, eta planteatu dezakegu noski eta eskubide guztiaz... Nik GARAIA-ri eta PUNTO Y HORA de EUSKAL HERRIA (??)-ri kritika hau egitekoan ez dut erori nahi beraiek egiten duten alderantzizko "zapalketa kultural" batean. Ez, ez dut eskatzen GARAIA edo PUNTO Y HORA euskera hutsean ateratzea; ezta ere erdia, askoz "posibilistagoa" naiz. Nik eskatzen dudana da gutenez o/o 30 bat euskaraz idatzia egon behar lukeela, "euskal politik astekaria" deitzeko.

Gaurko errealitate erdaldunak (erdarafonoak) eskatzen du gure informaketa ERDARAZ ere nahitanahi ez eman behar dela, jende hori gure nazional arazoetara bihurtzeko. Dakigunez jendeak Madrileko astekariak irakurtzen ditu; honela "gure herritarrek" ba dezakete beste ikusmira osatuago bat eduki. Ni ez nago erdararen aurka (posibilista naiz).

Baina ez dut onhartzen GARAIAREN eta PUNTO Y HORA-en kontradikzio nagusi hori. Bien euskarazko artikulu BAT BAKAR hori parragarria da, eta "involuntarie" gure herriko etsaiek eta faxistek gure kulturaren aurka egin duten jokabidea hartzen dute.

"GEROago, GEROago egingo dugu euskaraz, "Herriaren errekonbertsioa" egingo denean esateak injenuitate handi bat darama...Beraz, gerta daiteke GEROKO GERO hori iristekoan euskara **hilda** egoeta. Medita, politikariok, Irlandan pasatu den jokabideaz, eta gure 31 eta 36 urtetako Euskal Estatu-tuek duten kontextura diglosikoan!! Euskararen errebindikazio eta **praxia GAUR GAURTIK** hasi behar da, GERORA uzteak sorpresak ekar ditzake. Burruka **gaurtik**, ez **bihartik**. Euskararen erreflexioa eta errebindikazioa aldizkarietan bai erdaraz eta bai euskaraz, baina ez ERDARAZ **bakarrik**. GEROA-REN praxi hori arriskutsua da, eta gerta daiteka, bai, gure etsaiena bezain likidazionista.

Bi aldizkari hauen kontrako kritika ez litzateke hain gogorra 6 edo 7 bat "euskal astekari **oso** bagenitu". Egoera oso desberdina da, orde. ZERUKO ARGIA ETA ANAITASUNA, adibidez, oso toki mugatueta iristen dira. Irun eta Santurtziko "vascoentzat" laurdena "bakarrik" euskaraz duen aldizkari bat (beste o/o 70 edo 73 erdaraz) oso positibo eta beharrezkoa da; horrela inpaktu egin diezaietke gure kulturak, eta berehala bultzatzea kultura hori ikastera.

Bukatzeko, ohartxo bat baina... Baldin eta GARAIA edo PUNTO Y HORA hasiko balira o/o30 batean euskaraz idazten arren ez eror "baserri-diglosia" batean. "Baserri-diglosia" da gure la VOZ DE ESPAÑAK, DIARIO VASCOk eta beste batzuek egiten dutena; halegia, euskara ferian tipulak, patatak, idiapustuak, bertsoak, nobenak, "errosarioaren beharra eta horrelako gaietara mugatzea. Bertsoak periodikoan ondo daude, baina oso "gaizki" bertsoak eta feriako prezioek euskararen ekologia guztia mugatzen dutenean. Zergatik ez euskaraz editorialak, batzutan? Zergatik ez artikulu politikoak, mahainguruak, etab.?

Urte batean ia 200 liburu atera dituen hizkuntza batek "baserritar" egoera hori gaindurik dauka, eta "hizkuntza standard" bihurtuta dago. Entzun, 200 liburu inguru ziren joan den urtekoak, eta ez 285-edo eurrez PUNTO Y HORAK eman zituena. 200 liburu horik benetako record bat dira.

Azken bukaera honetan hasi naizen dialektikara noa. Ez dut uste GARAIK EUSKAL HERRIAREN koordenada antropologikoak onhartzen ez dituen EUZKADI baten pentsatuko duenik. Hortaz, ez eror "GEROKO geroaren erredentismoan". **Gaurtik** hasi, bestela EUZKADI "estatu vasco geografiko" bat bilakatzeko arrisku bizian gabilta.

Luis Mari Mujika

BAZKALONDOKO LAGUNIK ONENA



Ondo bazkandu ondoren, ba dakigu zer... Ba dau-
de, egon, paper sofisticatuagoak, kolorezkoak, usain
onekoak, etab. Gure ustez horik guztiak koplakeriak dira.
Egiaz behar dena hauxe da: paper on bat, tolestu beharrik
ez duena, eskuan nekez apurtzekoa eta problemarik gabe
garbitzen duena. Eta, gainera, iraunkor eta merkea.

"EL ELEFANTE"

Betidanikoa, luzeena eta merkeena duzu.



GERRAOSTEKO FUTBOLA EUSKAL HERRIAN

Andoni Elizondo nork ez du ezagutzen? Andoni, duela 43 urte jaio zen Donostian. 12 urtetan futbolar profesionala izan da, eta, gero, 8 urtetan entrenatzaile. Bata eta bestea "Real Sociedad"-en. 20 urte, beraz, futbolaren mundu barnean, zerbait ezagutzeko moduan.

Gaur futboletik erretiratuta dago. Gehiago ez hastekotan. Hitz emanda. Aspertu zelako utzi zuen. Gaur egun ez omen du futbolean pentsatu ere egiten. "Ba da gauza inportanteagorik".

Gauza inportante horiek beste batetarako utziz, futbola bera azertu nahi guke guk, Andoniren eskutik. Futbola, baina ez deporte bezala, baizik eta fenomeno sozio-politiko den mailan. Zalantzarik gabe, gerraoste honetan Espainian -eta gure artean- politikatik hurbil egon da futbola. Erregimenak bere politikarako erabili du. Baina baita oposizioak ere nolabait. Katalanismoaren ezaugarri omen zen Barça; eta abertzaletasunarena, Athletic de Bilbao. Baina azken 15 urteotan plazaratu den politik izpirituan, indentifikatze hauk ez dira horren argiak. Orain futbolak ez du gizarteko funtzionaltasun bera.



BI TALDE HERRI BAT



1.— Futbolaren politizatzea aztertu aurretik, futbolaren munduaz ardura gaitzen. Mundu hori, ze-laikoa ez baino janztokietakoa eta Club barnekoa, ez ezaguna da, erdi sekretua, osoa ez denean. Dakigun apurrak adierazten digunez, bestalde, ustel usainik ere ba da. Futbolariaren, entrenatzailearen eta Club baten penak eta pozak ezagutu nahi genituzke.

2.— Dirudienez, kontzientzia berri baten sorrera dago futbolariengan orain. Sindikatu bat sortu nahian ote dabiltzan jakin dugu.

3.— Erakunde mailan, hemengo ekipoek Madrilekin istilurik izan al dute? Oriundoen arazoa mahain gainera atera zenean, azpiko hasarreraren bat nabari bidezuen norbaitek.

4.— Gauza ageria da, nahiz eta oraindik behar bezala estudiatua ez izan, gerraosteko futbolak, fenomeno, soziologiko bezala, politikaren eragina alde guztietatik jasan duela. Politikaren konpoentsazioztat hartu izan da, bizimodu gogorraren aringarritzat. Futbolaren bidez ahaztu nahi izan dira benetako problema gorriak. Futbolaren bidez, klase diferentziak ere desegin nahi izan dira, futbol-zelaian ugazabak eta langileak bat egiten zutela eta. Askoren ustetan, futbolak frankismoaren irudira funtzionatu du: politikan bezalatsu guti batzuk jokatu eta gehienak begiratu bakarrik, parte hartu gabe. Alienazio bidez, beraz. Baina, beste modu batetara ere, politikaren sasi-irtenbidez bat izan da futbola. Politik alderdien ordezt futbol ekipoak hautatu ohi ziren. Ez ala?

Mundu hori, futbola erabiltzen duen mundu hori, labor esateko, interesen mundu bat da. Era askotako interesak, dirua eta fama horien artean. Zuzendari zenbaitentzat politik bide ere bai. Esaterako, Zaragozako bi Lehendakari, alkate izan dira geroztik.

Club batek entpresara bezala lan egiten du, entrenatzailea eta futbolariak enplegatu bezala hartuz. Erresultadoen arabera futbola —zeren eta gaur gauza guztien gainetik irabazi egin behar da, futbolaren makinak bere lana egiten jarrai dezan— okertzen hasten denean, kanpora bota ohi da entrenatzailea. Ezaguna da. Gure artean —Donostiaz ari naiz— gauzak ez dira hain gogor gertatzen. Lagun

Jokatzaileak hasi dira gaur egun beren bizimodu eskutan hartzen. Bai sindikatu bat eratzekotan dira. Gure ingurutik, Martinez eta Iribar ere tartean dabilta. Ba dute, bai, zer eskatu eta zer hobetu. Bi puntu aipa nitzake bereziki. Bat, Club-a dela futbolariaren jaun eta jabe: kontratua amaitzean, Club horrek nahi badu, legez, jokalaria kale gorrian utz dezake. Berdin, gehiago futbola ez praktikatzeko

Hemengo ekipoak ez direla beti ongi tratatuak izan, hori begien bistakoa da. Subentziotan eta, ezagun da hori. Alde batetik, gu ezkerreko begitik ikusiak garelako, politikagatik. Eta bestetik, ustelkeriarik ez delako falta goiko maila horietan. Kinielatiko dirua behar den lekuraino osorik iristen ote da? adibidez, etc.

Oriundoen arazoan, mengantza asmorik ez zegoen, baina bai garbiketa eta gauzak bere lekuan uzteko gogoia. Bi arrazoi izan ziren gidatzaile. Gauza argia zen jokalaria asko eta asko legearen kontra ekarriak zirela. Mundu guztiak zekien hori. Eta ez zen aurka deus egiten. Hori baino gehiago: gertatzen zena gerta zedin ez zegoen zalantzarik Delegazioaren

Zalantzarik gabe, bai. Futbolaren gerraosteko politizatzeak alderdi asko ditu. Egitura bera da oinarritik politizatua: Federazioa Delegazioaren azpian dago, eta hau Mogimenduarien mende. Ohar gaitzen honen garrantziaz, zigorrak eta subentzioak emateko unean. Eta deporte afizionatua OJE delakoak antolatzen duela gogoratzen al dugu?.

Bestalde, politizatzea **Club** eta ekipoei dago-kienez ere garbi garbia izan da. Erregimenari Club-ik lotuena, Athletic de Madrid da, Real Madrid baino ere gehiago. 1939an Atlético de Aviación bilakatu zen, eta militarrek eta zibilek osatzen zuten Zuzendaritza. Militarrengandik laguntza ere izan dute, noski: bidaietarako gasolina, adibidez. Real Madrid-ek ere, 1939an, jeneral bat du Lehendakariatza.

Beste kasu ezaguna, Barzelonakoa da. Katalanismoa, Barça-rekin; eta espainolismoa R.C.D. Español-arekin parekatu ohi ziren.

giro gehiago dago. Baina, ekipoa galtzen eta galtzen hasten denean, ikaragarri gaitotzen da bertoko entrenatzailea batentzat kaleko giroa.

Sanoenak, futbolariak dira, jokalaria. Cluben langile dira hauk. Futbola egiteko —edo irabazteko— ordainduak. Ongi ordaitzen zaie gorenko mailan bederen. Sarrerak oro kontaturik, alegia, soldata, sariak, etc., jokatzen dutenek behintzat miloi t'erditik hasita 5-6 miloraino irabazten dute. Pirri, Iribar eta hauk goiko horretan ibiliko dira. Baina ez dugu sekula ahaztu behar futbol-jokatzaileen bizitza oso motza dela, 10-12 urte. Bizimodu erraza era bai, eta burua hotz kontserbatzea eta etorkizun iraunkor bat prestatzea kondizio horietan ez dela erraza.

eran gelditzen bada. Jokalaria interesatzen bazaio, ordea, "derecho de retención" delakoari esker, azken fitxaketaren gain o/o 10 emanez, besterik gabe gorde dezake, nahi duen arte. Bigarren puntua, hau da: zigorrak eman ditzakeen Batzordearen aurrean, inolako defentsarik gabe dagoela jokalaria, arbitroa delako nagusi. Baina nola likete bat bere salatzaile eta epaile?.

eta Federazioaren batzuek laguntzarik ere ba zutela. Ustelkeria deportibo-juridiko hori salatu behar zen, bateko. Eta besteko, geure interesak ere arriskutan zeuden. Orbegozori otu zitzaion ideia. Eta Bilboko Athletic-ek berehalaxe onartu zuen. Izan ere, lekuko jokalariekin jokatu nahi duenak nola burruka milioien truke ekarritako futbolari hoberekin osaturiko ekipo batekin?. Tarte handiegia gerta zitekeen. Eta hemengo ekipoek orain arteko politikarekin jarraitzea nahiago zuten, hots, euskaldun futbolariekin bakarrik jokatzeko. Bilbok estatutotan du hori. Real-ak ere bide bera jarraitzen du. Politik asmo-punttarik ez da falta hor.

Eta gure artean? Athletic-en eta Real-aren artean ez dago horretan alderik. Tradizioagatik, edo, hala ere, politikazko identifikatze hori Athletic-ekin aisago gertatu da. Futbol zelaitan eta ekipotan aber-tzaletasunak etengabe iraun du.

Madrilakoek ez bezalako tradizio bat jarraitu dugu guk. Politikan bezala futbolekoan. Gerrakoan, deseginek gelditu ziren ekipoak. "Combinado vasco" bat Europa eta Ameriketara zebilen artean. Gerra amaitzean, haiekin bi bakarrik itzuli ziren, Gorostiza eta Roberto Etxebarria. Gainerontzekoek desterrua nahiago izan zuten, hala nola, Blasco, Eguskiza, Aedo, Areso, Barcos, Regeiro, Mugerza, Ziliaurren, Zubieta, Iragorri, Langara, Larrinaga... jokalariek. Orain ere abertzaletasunak zutik dirau.

Joan Mari Torrealdy



TEOLOGOAK ETA HERRIA

Sinatzaileak hau dira: Ricardo Alberdi, Rafael Belda, Olegario González de Cardenal, Juan Martín Velasco, Fernando Sebastián, Antonio Palenzuela, José María Setién.

Ikus daitekeenez, zazpi horietarik hiru euskaldunak dira edota Euskal Herriko semeak behintzat.

Nire eritzi apala hauxe da. Dokumentuari doakionez, oso teorikoa eta abstraktua iduritu zait, haseratik azkeneraino printzipio mailan mantentzen delarik. Ideia nagusi bat ageri da gailen luze-zabalera osoan: gizarte pluralista eta sekularizatu batetan, Elizaren berezitasunari eutsi beharra, hategia. Noski, berezitasun horrek ez du ukatzen gaurko munduan presente egon beharra, baina beti ere Jesukristorekin dituen loturak hautsi eta ahantzi gabe.

Euskal Herriko hiru teologo horiei gagozkierarik (halakotzat eman ditu prentsak), hobe zuketuen euskadun teologoekin elkartu balira eta hemengo (beren Herriko) errealitateari hurbiletik lotu balitzaizkio.

Halabaina, teologoek oraindalmokoa hurbileko errealitateetik ihes egiteko dohain aparta erakutsi dute eta oraingoan ere horrelako zerbaitek gertatu bide da.

Gertakari honek akuilaturik, gogoeta soil batzu eskaini nahi nituzke hemen. Honenbestez, euskal teologiari buruz hor aidean dabiltzan kezka batzuri haize piska bat eman nahi nieke.

Euskal teologia nahi litzateke. Horretan gara gu ere. Hauzi honetaz pentsatzen hasi orduko, ba dira zenbait gauza txokante.

Alde batetik, Hego Euskal Herrian ba daude hiru Teologi Fakultate (Iruinean, Bilbon eta Gasteizen), baina hor dabiltzan irakasle eta teologoek ez dute nonbait somatu oraino euskal teologiaren beharrik. Eta, bestela bada, ondo isilik daude.

Guzti honek kezka biziak sortzen dizkit. Izan ere, zernolako teologia egiten da ikasgu horietan? Zer da teologia hor dabiltzan horientzat? Alde handia dago teologia modu batera ala bestera ulertu: behin betirako finkatua legokeen egi bilduma bezala ala Herri baten historiak fededunari sortzen dizkion galderak jorratzea eta sakontzea bezala, Jainko Hitzaren argitan.

Hamaika jende ibili da eta ba dabil gure artean Jainko Hitzaren aberastasunak herriari azaldu nahian. Halabaina, inor gutiri entzun diot oraindainokoa, Jainkoaren hitza behar bezala jasotzeko gizonaren eta Herriaren hitza ere entzun beharra dagoela.

Joan den ekainaren 1.ean, zazpi teologok, tartean bi apezpiku direlarik, dokumentu luze bat argitaratu dute Espainia aldean. "Afirmaciones para un tiempo de búsqueda": hala dio izenburuak.

Jainkoaren hitza, ene iduriko, ez da paper zaharretan lizunduta geratu den mintzoa. Liburu Sainduak Herri baten historia bizian mamitu ziren eta gaur bertan ere historiaren dinamika barruan ulertu behar dira. Hortakoz, ez dago liburu horik behar bezala konprenitzerik orduko eta gaur-hemengo Herri bizitzaren barrenetik ez bada.

Ondorioz, ez dago Euskal Herrian Jainkoaren hitza behar bezala atxematerik, gure Herriaren ahotsari entzungor eginez. Jainkoaren hitza eta Herriarena hertsiki lotuta daude. Ez dut esan nahi biak bat direnik, baina ezin daiteke konpreni bata bestea gabe.

Agi denez, teologia egitea ez da hain gauza sinplea. Teologia egitea ez da Liburu hotz batetatik ateratako zenbait ideia salmentan ipintzea, goitik behera ezarriz. Teologia, hondo-hondoan, Herri baten historia interpretatzea da, horretarako giza jakintzen datuak haintzakotzat hartuz eta batik batik Jainkoak Jesukristogan eman digun hitz betearen argitan gure Herriaren gorabeherak jorratuz.

Hauk honela, Euskal Herriko teologo, exegeta, katekista eta gisa horretako jendeari dei larri bat egin nahi nieke hemendik. Izan ere, nolatan eman lekiok Herri bati Jainkoaren hitza, Herri berberorren hitza haintzakotzat hartzeke? Nola mintza gaitezke hain alegerak! Jainkoaren hitzak, gizonaren hitza lotuta daukagun bitartean? Ene ustez, Jainkoaren hitzak ez zuen horrelako biderik asmatu. Beraz, horretan gabiltzan bitartean, Jainkoaren hitza lardaskatzen ari gara, ez bestetan.

Nik ez diot inori borondate onik ukatuko, baina ni hemen gauzen errealitateaz ari naiz soilki. Ez da aski borondate ona. Gauzak ba dute beren sendidua eta dinamika, eta hortik jo behar da.

Dena den, Herriaren eta Herriarentzako teologia egin nahi baldin bada, zenbait puntu ezin litezke albora utz. Esate baterako, Jainkoaren hitzak eta gizonarenak dituzten harremanak, Herriaren boza ere hor sartze delarik. Eta, bestalde, Eliza eta Herriaren arteko loturak. Adibidez, Herria egiteak (herrigintzak) zernolako garrantzia dukeen Eliza biltzeko eta eraikitzeko.

Labur esan, teologia egitea ez da ideologia bat barreiatzea. Teologo izatea ere ez da bizibide eroso. Halaz guztiz, teologoak ba du zeregirik gure Herrian. Azken finean, Herria teologoak ez badu defendatzen, nork defendatuko du?

Jose Altuna

ZER EGIN?

ERAZKIDU MUGIMENDU KOMUNISTAREN ABERRIKO BATZOKIAREN ZABALKUNDIA
1976. urteko 15. zenbakia

¡Unámonos de todos los países y pueblos oprimidos!

SERVIR AL PUEBLO

ORGANO DEL COMITÉ CENTRAL DEL MOVIMIENTO COMUNISTA
1.976 25 de Julio

Agorrilaren 28 eta 29an, Movimiento Comunista de Euskadi—Euskadiko Mugimendu Komunista delakoaren berrehun eta berrogei ta hamar ordezkari bildu ziren alderdi honen lehen konferentzian. Ordezkari hauk Hego Euskal Herriko lau probintziatik etorriak ziren. Buruzagi gisa, Manuel Escudero (Bizkaikoa), Patxi Iturrioz (Gipuzkoakoa), Juan Carlos Etxebarria (Gipuzkoakoa), Rosa Olivares Txertudi (Bizkaikoa) eta Jesús Urra Bidaurre (Nafarroakoa) azaldu ziren.

Bi egun hauen barruan Mugimendu Komunistaren ordezkari hauek mugimendu honek Euskal Herrian izan duen joeraz eta aurrerakoan egin behar duenaz pentsatu eta hitz egin zuten, nork bere eri-

tzia emanez. Ba ziren bilera honetan, halaber, gonbidatu gisa, beste alderdi batzutako ordezkariak, hala nola, "Acción Nacionalista Vasca". "LCR-ETA VI" "E.K.A.", "O.R.T.", "P.C.E." eta "P.C. de Unificación" alderdietakoak.

Euskadiko Mugimendu Komunistak bere burua langile, alternatiba baten opatzaile, euskaldun eta indar demokratiko bat bezala agertu zuen. "Ezberdintasunak alde batera utzirik" ezkertiar indarren batasunaren bila ari direla esan zuten alderdi bakoitzeko ordezkariak.

M.C.ko ordezkari batek esan zigenez, "Euskal Herriko beste alderdi ezkertiar batzu" gonbidatuak izan arren, ez ziren han azaldu, E.H.A.S. haiei artean. "Penintsulako beste hispaniar nazionalitateekin batera burukatu behar dute euskaldunek", esan zigun. Euskarari buruz, M.C.E.k honela dio prentsarako gaztelaniaz egindako bere idazkian: "Lehen egindako akatsak gainditu ondoren, euskara egunero kabalik defendatzeko prest gaude, eta, beste euskal indarrek bezala, Euskadik (sic) bere kultura gero eta gehiago indartu behar duela uste dugu. "Lehen Konferentzia Nazional" hau amaitzerakoan, euskal giroa "Eusko gudariak" eta Oskorriren kanta ezagunenetakoa batzu kantatuz osatu zen.



Gaurkoa zarenorri
guk ezer eskaintzean,
biharko emakumeari ere
ari gara eskaintzen.

Laguntza berriak
zuri ematean,
zure nekeak, zure kezka zaharrak
dihardugu arintzen.


Berriak dira,
zuretzat ditugun asmoak:
onhartzen zailtxoak beharbada,
guztiontzat baitira berriak.

Baina zein ederra den pentsatzea
gaurko urrats zailok
aurrera gaituztela bideratzen,
biharko digutela
bidea urratzen!

Emakumearen Bankua,
Gaurkoa eta Biharkoa

BANCO DE BILBAO





LAN DEIA

IRAULTZERO BERRIAK OTE?

"Berrogei urtetako klandestinitate baten ondoren, plazara goaz, kalera", zioten, Bilboko laur izarreretako hotel bateko areto batetan, sindikal talde batekoek. Berauk "euskaldun eta langile"tzat azaltzen ziren. "Gure asmoa sindikatu bat egitea da eta, horretarako, Uztailaren 31an eta Agorrilaren 1ean kongresua egin nahi dugu". Kongresu lekua Bilboko Unibertsitate Autonomoa izango zela agertu zuten.

Dirudienez, batzumentzat behintzat, hori entrepresarienez azpijoku bat dago, langileria zatikatzeko eta, bide batez, oposizio politikoaren kontrako joakera. Bestela, ez da hain erraz konprenitzeko gauza, bertan azaltzera eman ziren bezala ikusirik, kazeturreko bat emateagatik hainbat diru nola erabil daitekeen, eta are guttiago, gainera, langile erakunde baten antolaketa denean. Ez da hori egunero ikusten den gauza, halafedea.

Elkar hizketan aipatu ziren puntu nagusienak hauk izan ziren:

ELA-STV.

"ELA-STV ofizialean sartzeko ahalegin guztiak egingo ditugu, baina orain kaleratzeko asmoa besterik ez dugu. Egia da, bai, STVko presidentek, Manu Roblesek, guk egin nahi dugun kongresua desautorizatu egin digula, baina guk ELA bezala jokatu nahi dugu eta beharrezkoa iruditzen zaigu kongresua egitea. Horregatik, guk denei pasatu diegu inbitazioa kongresu honetarako; ELA-STV ofizialari ere bai".

Era honetan ulertzen da sindikatu eta indar sindikal gehienek, bai Europakoek (CES, CIOSL, CMT), bai Espainiakoek (UGT, USO, CCOO), Kataluniako SOC-ek eta, nola ez Euskal Herrikoek (ELA-STV, LAB, LAK) kongresu honetara ez datozela esatea. Honekin batera, bertara doazenak esatea ere argigarria dateke: Hego aldeko laur probientzietako Cámara de Comercio delakoek ordezkariek halebaga.

Euskal sindikalgitza.

"Ba dakizue ELAekin zein posturatan gauden. LAB eta LAKEkin harremanak eduki ditugu, baina ez ditugu oraino ongi ezagutzen. Berauekin ditugun ezberdintasunak entrepresetako estrategian daude alde batetik, eta, bestetik, Euskal Herriaren etorkizunaz den bezainbatean. Esate baterako; kontutan hartu behar da greba bat egiterakoan zertarako eta zergatik egiten den eta ekintza hauetaz nortzu probetxatzen diren, zeren, askotan, langileen kalterako izaten baitira".

Non dago CCOOen demokrazia?

"Mugimendu sindikal honek jokaera erraza eraman du gure Herrian. Herria, garbi da, erdaltasuna-

ren aurka dago eta hauek Herria "erabili" dute, baina ez dute euskaldun jokabiderik hartu. Espainiar indar sindikalen aurrean kondizio bi ipiniko ditugu: bata demokratikoki jokatzeko, eta, bestea euskaldun izateko".

Sozialismoa ontzat ematen dugu.

"Langileriak duen eginbeharretako bat entrepresaren erreforma aurrera eramatea da" haien erantziz; horregatik "Euskal Herrian, azken 20 urte hauetan ez da industri sektore aurrenetakorik sartzeko politika zuzenik lortu; ez da aurrerabiderik eman eta, gaurko egoera modernoak beste baldintza batzuek eskatzen ditu, hemen, noski, betetzen ez direnak. Beste alde batetik, langileak bere interesak defendatu behar ditu. Jokabide honekin, espainol langilearekin batzea baino euskal burjeseriarekin elkartzeko nahiago genuke. Hala ere, guk sozialismoa ontzat ematen dugu".

Ezin dezakegu iparrekoekin, oraingoz, lanik egin.

Azken puntu gisa ipar aldekoen gaia ukitu zen. Honi buruz, beraien ustez, "euskaldunak denok gara eta horregatik bat egiten dugu. Horrek ez du esan nahi han eta hemen lan berdina eta era berdinean egin behar dugunik. Garbi dagoena da hemen ongi finkatu gabe ezin dezakegula goikoekin, oraingoz, lanik eraman. Hori luzarora begira egin behar den gauza da".

Egia esan, ez gaude handikeria hauetara ohituta eta klandestinitatean lana egin duten taldeetan ez dugu oraindik horrelako amerikar tankerako kazeturreko elkarrizketarik ikusi.

Behin eta berriro ere sigla batzuren manipulazioaren aurrean aurkitzen gara. Oportunismo hutsa. Bluff handi bat.


ORTZIKAR

ELA-STV OFIZIALAREN ARGIPENAK.

ELA-STV ofizialaren presidente den Manu Robles-Arangiz eta Jose Migel Leunda idazkariaren izen-deiturez firmaturik, ANAITASUNAN gutun bat jasoa dugu. Hor ELA-STV ofizialak, beste talde batek, ELAren izenean, Uztailaren 31an eta Agorrilaren 1ean Bilboko Unibertsitatean konbokatuko duten kongresuagatik bere protesta adierazten dute, sindikal erakundearen siglak manipulatzeko ukan duten lotsa eskasa salhatuz, Gutun berean, ELA-STVek bere batzarre ofiziala Urrian egiten duela argitzen du.



POSTAZ ETORRIAK



Tolosa 1976 - abuztua - 1

ANAITASUNAREN Zuzendari Jn. Bilbo.

Adiskide:

ANAITASUNAK euskal Foruak eskaini dien ale berezian Euskal Foruak Espainiako Gorteetan nire lantxoak argitaratu duzu. Eskerrik asko, eman diozun sarbideagatik.

Lan hori dela eta, zuzenketa bat egin nahi nioke agertutakoari, izan ere puntu interesgarri batean inprimategiko deabruku-meak egin ere egin baitu bere deabrukerietako bat.

1876ko Cánovas-en legeari buruz hau nioen: legeak "sarrean bestelakorik baldin badio ere, laugarren eta bosgarren artikuluetan bi tratara ezberdin agertzen dira garaile eta bentzutuentzat". Garaile eta bentzutu haiek, denak euskaldunak ziren, azken karlistadan alde batean eta bestean parte hartutakoak. Bi aldeei legez ezartzen zitzaizkien bi tratara ezberdinek ba zuten, noski, Gobernuaren asmoetan beren "filosofia" politikoa... Horregatik, komeni da ondoren etorri behar zuten nire lerroei beren testu-ingurua ematea, zegokien toki honetara ekarriz, hola zioten:

"Zergatik berezketa hori (garaileen eta bentzutuen artekoa, halebegia)? Ba dirudi Euskal Herria erdibitu egin nahi dela: alde batek karlistak, bestetik liberalak. Monarkia birreraiki berriak bere "klientela" segurtatu egin behar du euskal gizartean".

Ene ustez, lege hura horretarako zuzendua zegoen: elkarren kontra burukatutako bi alderdikoei ematen zizkien tratara ezberdinen bidez, alde bat Madrilerara begira jartzera. Gerratearen luzapen bat da lege hura. Azpitik joko politiko bat zegoen: Euskal Herriko talde pribilegiatu baten bidez Euskal Herri osoari etorkizun libre bat lapurtzera. Gerra galtzaileak, eskubideak ere galdu egiten baititu, nonbait. Vae victis!

Horixe bakarrik zen argi utzi nahi nuen. Agur.

Joseba Intxausti

ANAITASUNAKO LAGUNOI KAIXO ADISKIDEOK:

Urte bete da Anaitasunako harpidedun naizela. Ordainketa papera ailegatu zait eta ordaintzeaz batera aldizkariari buruzko eritxi batzuk eman nahi ditut, partaide sentitzen bait naiz, onerako izango direlakoan.

Azter ditzagun hiru puntutan: 1) Zelan dabilen Anaitasuna azkenotan, 2) Zer hutsune betegarri ageri den euskal alorrean, 3) Zer bide har dezaken aurrerantzean aldizkari honek.

1) Azken aldiko berritzeaz polit-xamar agertu ohi da, baina ez da hau aski. Zeren tapa eta paper mota guztiak adieraziaren lagungarri diren aldetik baino ez bait dute balio. Egia esan, artikulua pobre xamarrek ateratzen dira. Alde batetik, leku gehiegi okupatzen dute komunikaduek, agerik, kultur aste eta jaialdi programak, hitzaldi anuntzioak e.a. Baina benetako problema idazlan askoren garra-falta da eta, batez ere, sakontzen joanik: tematikaren erdikoitasuna dateke.

Politika joerari bagazokio ere zabalago jokatu beharko litzake. Abertzale sozialista omen da. Hain zuzen irekia egon beharko luke planteamendu abertzale ezkertiar guztientzat, (komunistei e.a.-en alegia) ez bait dute hor hots haundirik orain arte.

2) Besteren artean hau daitezke euskal alorre hurbilean dauden zereginak:

-Euskal kultura nazionala eta euskara proletargotu. Honetarako, adibidez, puntu hauk: euskal kulturbideak merketu, ateak ireki kanpora eta lantegira irtetzea. Nazionalitatea langileriak batzen du eta langileriaren eskutan dago Euskal Herriaren etorkizuna (ez da demagogia) eta hau euskal periodismoak ongi kontutan hartu behar du tematika eta jarreraren aldetik.

-Gutziz deskuidatua uste dut duzutela, bestalde, literatura, eta batez ere literatur kritika. Baita ere berdintsu ahaztu-xamarrek dituzue beste gizarte gai asko (soziologia, marxismoaren teoriaren eztabaidak, historia eztabaidak e.a.).

-Euskal periodismo eskola bat edo. Honetaz, beharrezko ikusten dut hontarako mintegi bat montatzea unibertsitate mailan edo.

3) Anaitasunak zer? Ba... esandakoari... Hiru ikuspuntu marka daitezke. Planteamendu orokorrez bata, aipatutako jokatibidez merkeagoa (argitarazio merkeak ez du aldizkaria ahultzen) eta herrikoia (harpidedun gehiago lortzeko kanpainak eginda). Bigarrena, errebistaren tematika: orokorra izan beharko litzateke, berriak eta azterketak ongi konpaginatuta (politika, soziologia, literatur kritika, liburu kritika e.a.). Hirugarrena: aldizkariaren kanpora-begirako lana gazteren formazioan (kazetaritza base gertatzean) ere egon daitezke.

Eta zergatik tokatzen zaigu guri? Esango didazue... Eta nondik ateratzen du tipo honek hola-koak eskatzeko eskubidea?... Ba mangapetik noski. Baina edozein ere euskal jendeok arduratu xamar gaude gure komunikabidez eta honela edo hala saiatzen gara hortan egin ahalean.

Eta nor-berak erdaraz sarri marabilak irakurtzen dituenen (EL PAIS, OZONO, Cuadernos..., ZONA ABIERTA etc, etc) lotsatu egiten da pixka bat etxeko ANAITASUNAN, batzutan, irakurritakoak berirakurri eta hormigoia irentsi behar duenean.

Ikasi, badugu zer ikasteko. Badakigu zuen aldetik ez dela ahalegina faltako. Izan daitean ANAITASUNA herriarena, herriarentzat eta herriak egina. Hala biz., denon artekoa.

J.S.

Durango Uztailak 28

Tolosa 1976 - abuztua - 1

ANAITASUNAREN Zuzendari Jn.

Bilbo

Adiskide:

ANAITASUNAK euskal Foruei eskaini dien ale berezian, *Euskal Foruak Espainiako Gorteetan* nire lantxoak argitaratu duzu. Eskerrik asko, eman diozun sarbideagatik.

Lan hori dela eta, zuzenketa bat egin nahi nioke agertutakoari, izan ere puntu interesgarri batean inprimategiko deabruak egin ere egin baitu bere deabrukerietako bat.

1876ko Canovas-en legeri buruz hau nioen: legeak "sarrean bestelakorik baldin badio ere, laugarren eta bosgarren artikuluetan bi trataera ezberdin agertzen dira garaile eta bentzutuatzat". *Garaile* eta *bentzutu* haiek, denak euskaldunak ziren, azken karlistadan alde batean eta bestean parte hartutakoak. Bi aldeei legez ezartzen zitzaizkien bi trataera ezberdinek ba zuten, noski, Gobernuaren asmoetan beren "filosofia" politikoa... Horregatik, komeni da ondoren etorri behar zuten nire lerroei beren testu-ingurua ematea, zegokien toki honetara ekarri; hola zioten:

"Zergatik berezketa hori (garaileen eta bentzutuen artekoa, halebria)? Ba dirudi Euskal Herria erdibitu egin nahi dela: alde batetik karlistak, bestetik liberalak. Monarkia birreraiki berriak bere 'klientela' segurtatu egin behar du euskal gizartean".

Ene ustez, lege hura horretaraxe zuzendua zegoen: elkarren kontra burukatutako bi alderdikoei ematen zizkien trataera desberdinen bidez, alde bat Madrilerara begira jartzera. Gerratearen luzapen bat da lege hura. Azpitik joko politiko bat zegoen: Euskal Herriko *talde pribilegiatu* baten bidez Euskal Herri *osoari* etorki-

zun libre bat lapurtzera. Gerra galtzaileak, eskubideak ere galdu egiten baititu, nonbait. *Vae victis!*

Horixe bakarrik zen argi utzi nahi nuen. Agur.

Joseba Intxausti

Zuzendari jauna agur:

Anaitasunaren 318. zenbakian, "Langile Batzordeak gaur (Hego) Euskal Herrian) deritzan artikulua irakurri berri dut.

Neure ahalmen guztiakin, zuzendari jaunari erregutuko nioke era horretako artikuluci bukaera emateko.

Inork uste ahal du gaurko Euskal Herriko langile Batzordeen ikusmira neutral bat eman daitekeenik? Nola esan daiteke Euskal Herriko Langile Batzordeak CONE eta CECO taldeetan zatiturik daudela? Hauetatik at

ez ote da besterik? LAB, LAK, ELA etab. non daude CONE ala CECO? Eta ezin esan ezagunak ez direnik! Zergatik "Langile" da CECO erabiltzen?

Galdera guztiok erantzun eta gero, uste dut artikulua horren egilearen borondate ziztrina bistan dela, eta aurrera begira era honetako partzialkeriak baztertuz joan behar duzelakoan agurtzen zaitut.

M.I.

Idiazabaldik 1976-6-9

ANAITASUNAREN OHARRA:

Esandako artikuluan egileak ez zituen Euskal Herriko Langile talde guztiak aipatzen, erdaraz Comisiones Obreras (CCOO) deitzen direnak baizik: arrazoizkoa iruditzen zaigu kritika, dena den, eta hurrengorako erdal izan eta siglak "dauden bezalaxe" uzten saiatuko gara.

LIBURUAK

GURE AMARA

GURE AMARA, aldizkari berria

Donostiako Amarako hauzo elkarteak aldizkari berri bat kaleratu du, "Gure Amara" izenarekin. Lehen zenbakia dohainik zabaldu dute. Harigarria da benetan, hauzo elkarteak hartzen ari duten indarra. Gure esperientziak, ba dakigu jakin, aldizkari bat aurrera ateratzea ez dela batere gauza erraza. Hala ere, amaratarrek —beste hauzo elkarte batzuk jadanik egin duten bezala— beren aldizkaria kaleratu dute, eta ongi kaleratu ere.

Maketapen aldetik poliki, zenbait argazkiz hornitua, artikulua interesgarriak... Aldizkaria bi hizkuntzatan dator, eta euskara gehiegi ez badakar ere (20 horrialdeetarik 4 soilik baitaude euskaraz), ba dirudi, elebitasunaren aldeko lanik franko egin dezakeela eta eginen duela. Zorionak, beraz, aldizkaria posible bihurtu duten guztiei! "Ezina, ekinez egin" dio esatera batek. Hasean nahiko ona ukan duen aldizkari horrek, amaiera hoberik ukanen ahal du!

R.G.

AZURMENDI, Joxe

"Zer dugu ORIXEren kontra"

JAKIN, Oñati 1976

Euskara batuan. 184 horrialde. Orixe ahan-tzirik omen dugu eta Azurmendik plazaratu nahi digu. Liburu bitan aztertuko du idazlea eta bere lanaren hainbat zehetasun. "Esku artean dugun liburu honek ez du Historiarik egin nahi" (11. horr.), ez eta Orixeren lanaren azterketa literario kritiko bat. Orixe zergatik bandera bihurtu den, zergatik "eskuindar kafre guztiak Orixeren deboto izatera obligaturik daude"n (11. horr.) eta zergatik azaldu berriarentzat Orixe existitzen ez den.

Biografia labur bat Orixeren sortzeaz eta hezitzeaz, irakurlea Orixe nor zen jakin dezan. Orixeren hainbat alderdi aztertzen dira ondorengo kapituluetan. Haren erlijio eta moral hestutasuna nabari da sortu zuen literaturan eta "oker ez bana-go, honelako testuak, oraingo irakurleari baino are gogorragoak egiten zitzaizkigun atzokooi; orduan Kardinale Segura, Goma. Pla i Deniel, eta abar oraindik irakurri egiten ziren, eta Kristo Erregeren gerrilaririk oraino ez bazebilen ere" (39. horr.).

Orixeren lanari pietismoa dario. "Nahiago zuen euskara hiltzea, euskarazko biraorik baino" (47. horr.). Bestalde, Orixe euskaltzale eta abertzale zen. Orixe eta Arestiri hainbat karakteristika komun aurkitzen die Azurmendik. Bat, sorlekuarena. Arestik, Bilbo aipatuko du, Orixe Uitziz bezala. Uitzin, "etxe inguruan hartzen da gauza guztien neurria" (60. horr.). Bere produkzioan, ber bizitzan zehar, behin eta berriz joko du Orixe bere baserri giroa, bere haurtzarora.

Maisu trebe zen Orixe, bai hitz neurtuan, bai prosan, baina Maisu izan arren, ez du eskolarik sortu: "Orixeren euskara famatua Orixeekin joan zen" (70. horr.).

Erabili zituen gaiak, gehienbat, erlijiosoak izan ziren eta itzulpenak egin behar zituenean, libertade handiegia hartzen zituen, berak aitortu baitzuen idazleari baino begiramen handiagoa irakurleari zor ziola (hau moralean zuen kontzeptuaren arabera). Baina maiz erabiltzen zuen euskarak baldintzaturik. Adibidez, Giza Eskubideen Deklarazioaz hau dio Azurmendik: "Daukaguna Orixeren deklarazio bat da, ez ONUrenik" (145. horr.). Oro har, eta liburuaren tituluak bestela adierazten badigu ere, Azurmendiren tribunaletik Orixe dezente samar irteten da, hiru lehen euskal literatoen artean sartzen baitu.

Eta, zer esan Joxe Azurmendiz? Harrigarria da idazle honen emankortasuna. Ene ustez, Azurmendi dugu horrialde gehien bete duen euskal idazlea. Azurmendi irakurtzeko, irakurleak ez du inolako problemarik, denborarena ez bada, idazle berak ere idazterakoan ez duen bezalaxe. Ba diru-

di, idazterakoan, hizkuntza ez dela oztoporik (Orixeren kasuan ez bezala) nahi duena idazteko. Hizkuntza normalizatu beharrean aurkitzen garen garai honetan, euskara standard bat sortzeko une honetan, hor dugu Azurmendi, nahi duena idazten irakurleak ulertzeko eran. Jadanik, euskara ez da Azurmendirentzat buruhauste bat, helburu bat. Haren helburua, idaztea da, eta euskara, idazteko tresna. Izan behar duen bezala.

Xabier Gereño

JUARISTI, Jon

"Euskararen ideologiak"


KRISELU, Donostia, 1976

Euskara batuan. 80 horrialde. Trilogia bat osatuko duten hiru liburuetatik lehena. Lehen liburu honetan, Jon Juaristik aztertzen ditu euskara eta euskal gizartearen arteko harremanak historian zehar, Arana Goiri arte. "Hizkuntza, lan berezi baten produktoa dugu", Rossi Lande-ri jarraikiz (10. horr.), eta "klase sozietateetan produkzio hori klase nagusia eta haren intelektual organikoen zuzendaritzapean desarroilatzen da". Gizaldiz gizaldi, euskal populua euskaldun monolingue zen eta horrela jarraitu zuen Ahaide Nagusien garaian ere, XIV mendean merkatal burgesia sortu arte. Burgesia berri hau Gaztelako Nobleziaren eraginaz kutsaturik dakusagu eta haren hizkuntza hartzen du. Moderno Haroan fenomeno hau gertatzen da Euskal Herrian: diglosia bat bilinguismoa gabe. Horren zergatia: oligarkia eta populua monolinguek dira, hura gaztelaniaz eta hau euskaraz, "eta euskararen bandera populu zelaiaren eskuetan kulunkatu zen" (38. horr.), eta oligarkia erdaldunduaren eraginez, euskara marginaturik geratzen da. Burgesiaren intelektual organikoak sortzen zaizkigu, eta ondorioz Tubalismoa, "oligarkia berriak behar zuen noblezia unibertsala frogatzeko" (68. horr.).

Liburu hau Sabino Arana-rekin bukatzen da, baina haren lana ukitu gabe, hori izango baita hurrengo liburuaren gaia. Dena den, Jon Juaristik zerbait dio Aranaz, hemen kopiatzea interesgarri iruditu zaidana: "Ene ustez, bidegabe handi bat kometitu da Sabinorekin, eta hogenaren parte printzipala haren epigono politikoen lepoetara doa, "Maisu" aren pertsoniaz aszeta serio eta malkotsu bat egin baitute. Sabino izan dugu bilbotar umoristarik lehenetako bat" (71. horr.).

Emandako laburpen honek adierazten duenez, Jon Juaristiren liburuak ba du interesik eta euskal liburugintzan alor berri bati maisuki hasiera ematen dio.

Xabier Gereño



Luzetara: 1: L.- 2: Ahate.- 3: A. Aho. H.- 4: Zamartua.- 5: Iola. Ertz.- 6: kaidiaz.- 7: A. Kea. A.- 8: Hanka.- 9: D.- 10: A.- 11: Kukua.

Goitik behera: 1: R.- 2: Azoka.- 3: A. Ala. H. K.- 4: Hamak.- 5: U.- 6: Iaha. Dendak.- 7: Totelak. U.- 8: E. Ura. A. A.- 9: Z. Hatz.- 10: Z.

AZALPENA

GURUTZEGRAMA

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
|----|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | | | | | | | | | |
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |
| 11 | | | | | | | | | |

IIARPIDEDUN ETA IRAKURLEOI
OHAR BAT.

Estrukturazio osoan gaudenez gero, "ANAITASUNA" gero eta hobego egiteko zenbait oztopo eta zailtasun gainditzen ari gatzazue. Hala ere oraingoan bi "ANAITASUNA" bate-tan argitaratzera behartuak izan gara. Aurrerakoan gure betiko hamabostero-roko epea gordeko dugu berriro. Eskerrik asko zuen ulertzeagatik.

Luzetara: 1: Kontsonantea.- 2: Hegazti urzalea, anketan mintzak dituena.- 3: Bokala. Jateko zuloa. Kontsonantea.- 4: Zama jarri (artikuluarekin).- 5: Sail (alderantziz). Zoko, bazter.- 6: Zama abere etxeak (alderantziz eta pluralean).- 7: Bokala. Suari dariona (artikuluarekin). Bokala.- 8: Zangoa, ibiltzeko abarra.- 9: Kontsonantea.- 10: Bokala.- 11: Udaberriaren etorrera bere kantaz adierazten duen isoria.

Goitik behera: 1: Kontsonantea.- 2: Merkatua.- 3: Bokala. Edo. Kontsonantea. Kontsonantea.- 4: Zenbakia. Bokala.- 5: Posibilitatea, boterea (alderantziz). Salerosteko etxea (pluralean).- 6: Hitz egiteko erraztasunik gabea (pluralean). Bokala.- 7: Bokala. Isurki naturala. Bokala.- 8: Eskuak duen artikulu bakoitza (artikuluarekin).- 9: Kontsonantea.

Herriarekin. Herriarentzat.



Caja Laboral.



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AVREZKITA**

Gipuzkoan, nor gu baiño gertuago?

91 etxe zuretzat urbillago

Izan ere, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa etxe hau duzue Gipuzkoako Kutxetan lehengoa.

Horregatik, gipuzkoarren zerbitzurako beti gertu eta prest egotera behartuak gauzkazu. Hauxe da gure egitekorik nagusiena. Horretarako sortu zen, batik bat, Caja de Ahorros

Provincial de Guipúzcoa 1896. urtean. Gipuzkoarre kutxa duzue Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Ba duzu arrazoirik, beraz, gurekin elkarturik egon zaitezten.

Utz ezazu zeure uste osoa Gipuzkoako lehen Kutxa den etxe honetan.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA**

